


Aldahitz IKERKETA

EUSLE METODOLOGIA
ESPERIENTZIEN EMAITZAK
2013-2016



Pello Jauregi Etxaniz



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Pablo Suberbiola Unanue

Argitaraldia: 2017ko maiatza
Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra
Egileak: Pello Jauregi Etxaniz, Pablo Suberbiola Unanue

Osaketa grafikoa: Artefakto (Algorta) eta Zirrimarra (Andoain)
ISBN: 978-84-943708-5-4



Argitalpen digitala

Babesleak:



Bazkide partaideak:




Aldahitz proiektuaren Garapen Taldean parte hartzen duten erakundeak (alfabetikoki zerrendatuta): AHIZE-AEK, Artez euskara zerbitzua, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza, UPV/ EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila eta Soziolinguistika Klusterra.

2017ko maiatza

Aldahitz IKERKETA

EUSLE METODOLOGIA
ESPERIENTZIEN EMAITZAK 2013-2016



Pello Jauregi Etxaniz

Pablo Suberbiola Unanue

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA





Aldahitz IKERKETA

EUSLE METODOLOGIA
ESPERIENTZIEN EMAITZAK 2013-2016




AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK	7
2. EUSLE METODOLOGIAREN NONDIK NORAKOAK.....	10
3. USTE TEORIKO NAGUSIAK	14
3.1. Taldetasuna	14
3.2. Hizkuntza jokaera: indar-jokoa.....	16
3.3. Erabilera bide, ez emaitza	19
3.4. Txikitik handira	21
3.5. Denboraren kudeaketa: errepikapena eta atsedena	23
4. IKERKETARAKO METODOLOGIA.....	25
5. EMAITZEN EZTABAIDA	31
5.1. Lantokiak.....	31
5.2. Joera nagusia	33
5.3. Euskarazko hizkuntza ohitura eskuragai zutenen hizkuntza erabileraren bilakaera.....	36
5.4. Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak	38
5.5. Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteak	40
5.6. Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteak	42
5.7. Eusleak eta ez-eusleak	44
5.8. Esperientzia jarraituak eta tartekatua	46
6. ONDORIOAK	50
7. BIBLIOGRAFIA.....	54

8. ERANSKINAK.....	55
Banakako azterketa.....	55
1. Langile kopurua	55
2. Hizkuntza erabileraren bilakaera.....	56
3. Hizkuntza egoera hobetzeko tartea hasieran eta harekiko emaniko aurrerapenak.....	57
4. Eusleen eta ez-eusleen banaketa	58
5. Eusle izan diren eta izan ez diren langileen hizkuntza erabileraren bilakaera	58
6. Eusleen hizkuntza arauaren betetze maila	59
7. Eusleen hizkuntza erabileraren bilakaera, hizkuntza arauaren betetze mailaren arabera.....	59
8. Esperientzia jarraituak eta esperientzia tartekatuak.....	60
Bikotekako azterketa	61
9. Bikote kopurua	61
10. Harremanaren maiztasuna	62
11. Hizkuntza kategorien bilakaera	64
12. Bikoteen sailkapena, kideak eusle izan ala ez aldagaiaren arabera.....	64
13. Bikoteen sailkapena, kideak hasieran norbaitekin euskaraz egiteko ohitura izan ala ez aldagaiaren arabera	65
14. Bikoteen ibilbidea neurketaz neurketa, “beti edo ia beti euskaraz” kategoriaren ikuspegitik begiratuta	66
15. Bikoteen sailkapena , “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera	67

1.



AURREKARIAK

Zazpi urte pasa dira honezkero, 2010. urtean Soziolinguistika Klusterrak lehen aldiz *Aldahitz Ikerketa* abiatu zuenetik. Zazpi urte emankor hauetan ugaltu dira Aldahitz izenaren azpian egiten ari garen ikerketak, eta, egun, agian, Aldahitz Ikerketaz baino Aldahitz Egitasmoaz hitz egitea egokiagoa izan liteke. Izan ere, egun, hiru ikerketa garatzen ari baikara Aldahitz Egitasmoaren barruan: *Eusle* metodologiaren garapena batetik, *Ulerrizketa* metodologiaren aplikapena bestetik eta *Uler-saioen* inplementazioa azkenik.

2010. urtean “Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketa lan munduan” izeneko lanak lehenbiziko harria jarri zion Aldahitz egitasmoari. Hartan, zortzi kasu aukeratu ziren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko enpresa publiko zein pribatuko langileena, beren euskalduntze prozesu arrakastatsuen nondik norakoak aztertzeko. Eta euskalduntze arrakastatsua esateaz bi adierazle nagusi genituen gogoan: batetik euskara ikasi izana, eta bestetik lankideren batekin euskaraz aritzeko ohitura eskuratu izana. Kasuak aztertuta, hainbat gako identifikatu ahal izan genituen hizkuntza ohitura aldatze prozesuari buruz. Kasu guztietan honako osagai hauek antzematen genituen: Hasteko, inflexio puntu bat, non lankide euskaldun batek ordutik aurrera euskaraz egiteko erabaki zorrotz eta argia hartzen zuen euskara-ikasle den lankidearen oniritziarekin. Lankide euskaldunak beti eusten zion euskarari, eta euskara-ikasle den lankideak, euskaraz gero eta gehiago erabili arren, gaztelaniaz baliatzen zen bitarteko gisa egoeraren presioa edo jardunaren gehiegizko zailtasuna gainditzeko. Horrek praktikan elebitako elkarrizketak zekartzan kideen artean, tarteka bada ere. Euskarazko elebarrereko elkarrizketarako bidean, elebitako elkarrizketa horiek makuluen zeregina jokatzen zuten era nabarian.

Zer baldintza sortu beharko lirateke berariaz, nahita eta era kontzientean, berez eta era naturalean sorturiko kasu horien antzera, euskalduntze prozesu arrakastatsuk ugaltzeko? Horra hor, geure buruari luzatutako galdera eta erronka, eta 2011. eta 2012. urtetan gure ahalegina zeharo harrapatu zuena. Haren emaitza *Eusle metodologia* izan zen.

Eusle metodologiak taldetasuna du oinarri: talde erabakia, talde kontrola, eta taldekideen arteko zereginen banaketa eta osagarritasuna. Badu, era berean, ezinbesteko baldintza bat, eta da kide guztiek euskaraz ulertu behar dutela. Bestalde, erronka puntua dario: kide gutxi batzuek –kide horiek taldeak aukeratuak gainera- euskaraz egingo dute beti taldekide guztiekin, besteek erdaraz erantzun arren. Azkenik, badaude amu batzuk, taldeak erraz eta eramangarritzat edukitzeko moduko eskakizun “xumeak”.

2013. urtean lehenbiziko esperientziak egiten hasi ginen *Eusle metodologia* aplikatzeko asmoz, eta 2014. urtean are toki gehiagotara zabaldu ahal izan genuen esperientziaz auzoa. Guztira, 78 lagun aritu ziren zazpi lantokitan banaturik. Honako lantegi hauetan, zehazki:

- JMA lan kooperatiban
- Tolosako Udaleko Zerbitzuetako Sailean
- Tolosako Udaleko Hirigintza Sailean
- Zarauzko Udaleko Diruzaintza Sailean
- Fagor Markina lan kooperatiban
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kultura Sailean
- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailean

Esperientzia hauetan eskuratutako emaitzek erakutsi zuten *Eusle metodologiak* bazuela indarra hizkuntza jokaera nabarmen astintzeko (18,5 puntuko igoera euskararen erabileran) eta baita aurrerapenak denboran zehar finkatzeko ere (11,3 puntuko igoera). Datu horiek guztiak argitaratuta daude formatu digitalean, eta Soziolinguistika Klusterreko web orrian daude eskura¹.

Hurrengo bi urteetan, 2015. eta 2016. urteetan alegia, aukera izan dugu sei esperientzia gehiago egiteko, eta haietan 88 langilek hartu du parte. Honako hauek izan dira lantokiak:

- Lemoako Udala
- Oñatiko Udala
- Donostiako Trafiko Saila
- Iurretako Udala
- Basquetour
- Danobat (Isparter)

Aipaturiko sei horiez gain, 2015-2016 aldian beste lau esperientzia abiatu ziren, baina ez zuten aldi osoa bukatu, talde bakoitzak berak hala erabakita. Horrelako kasurik ez zen gertatu 2013-2014 aldian (hau da, abiatutako zazpi esperientziak osatu ziren amaieraraino), baina metodologian

¹ Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2015), *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <http://www.soziolinguistika.eus/files/ALDAHITZ%20ikerketa%202014.pdf>


aurreikusita dago esperientziak lehenago eteteko aukera hori, eta 2015-2016 aldian hala gertatu da lau gunetan. Nolanahi ere, lan honetan, 2013 eta 2016 artean osorik burutu diren 13 esperientzien inguruan arituko gara soilik, osatu ez direnei buruzko xehetasunik batere jaso gabe. Izan ere, “Ikerketarako metodologia” atalean azaltzen dugun moduan, ikerketa hauek diseinu oso-oso sinplea dute, nahita, eta oso datu gutxi jasotzen ditugu. Horrela, ez genuke izango batere oinarri enpirikorik lehenago eten diren esperientzietan hori gertatzeko balizko motiboak edo aldagaiak zeintzuk izan diren jakiteko, eta beraz mugatuko gara, esan bezala, osorik garatu diren esperientzien gaineko azterketara.

Hainbat berrikuntza eragin genituen bigarren aldiko esperientzia hauetan. Batetik, aholkularitza erakundeen esku utzi genituen metodologiaren aurkezpena eta jarraipen lana. Aurreneko aldian, ordea, lan horiek guztiak zuzen-zuzenean izan ziren ikerketa taldearen esku. Bazegoen nolabaiteko interesa metodologiaren aplikazioa sozializatzeko eta zabaltzeko, eta hala pentsatu zen aholkularitza erakundeetako kideak prestatu beharra zegoela eta haiek hainbat arduraren hartzea lagungarri izan zitekeela. Bestetik, esperientzia estandarren aldaera bat prestatu genuen “esperientzia tartekatua” izenarekin. Baldin esperientzia estandarra bi hilabetez jarraian bazen, esperientzia tartekatuan esperientziaaldiak eta atsedeenaldiak tartekatu egiten ziren, era honetan egin ere: hilabetez esperientzia, hiru astez atsedeenaldia, bi astez esperientzia, hiru astez atsedeenaldia, bi astez esperientzia. Aldaera honen bidez, ikusi nahi genuen ea esperientziak denboran zehar tartekatuz gero, emaitza hobekien eskura genitzakeen, hizkuntza jokaera berriaren finkatzeari zegokionez.

Argitalpen honetan, era bakarrean eta multzo berean sartuta aztertuko ditugu lehen aldiko zein bigarren aldiko esperientziak, eta saiatuko gara joera edo datu oinarritzako agerian jartzen. Era berean, “esperientzia tartekatuen” aldaeraren azterketari arreta berezia emango diogu.

Bukatzeko, aipatu nahi genituzke Aldahitz Egitasmoari eusten dioten erakunde guztiak. Horiek dira: Emun, Elhuyar Elkarteak, AEK-Ahize, Artez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Azkeneko bi erakunde horiek finantzatzen dute egitasmoa. Erakunde guztiek parte hartzen dute esperientziak lokalizatzeko, abiatzeko eta jarraipena egiteko lanetan. Soziolinguistika Klusterrak, aldiz, bere gain hartzen ditu hala ikerketa lanak, nola koordinazio eta jarraipen zereginak.

2.



EUSLE METODOLOGIAREN NONDIK NORAKOAK

Gogora dezagun, hasteko, zeintzuk diren *Eusle metodologiaren* eskakizun zehatzak, eta antolaketa irizpideak ere, nahiz eta datu hauek bestelako argitalpenetan dagoeneko agertu izan diren, eta hemen baino xehetasun handiagoz agertu ere gainera². Hau bera laburpena baizik ez da izango, haren berri bat ere ez duen irakurlea gogoan hartuta.

Metodologia estandarra azaltzen hasiko gara, geroko utzita haren aldaera den metodologia “tartetkatua”.

Funtsean hau da ideia nagusia:

Talde batek bi hilabeteko erronka onartzen du, zeinean kide gutxi batzuk (eusle esaten zaie) taldeak berak aukeratzeko dituen, eta talde hartako gainerako kide guztiak, gai informaletan zein formaletan, beti euskaraz egingo duten.

Oinarritzko ideia horrek behar ditu hainbat zehaztapen eta mugaketa, jarduera ongi operazionalizatzeko. Honako hauek:

- **Talde diogunean**, langile multzo bat hartzen dugu gogoan, haien artean lan dinamikak harreman tarteko edo handia eskatzen duena. Horregatik hain zuzen ere, komeni da taldeak handiegiak ez izatea (30tik ez pasatzea hobe). Azpitik ere komeni da taldeak txikiegiak, eta beraz itxiegiak, ez izatea (10 kide baino gutxiago ez da komeni).
- **Bi hilabeteko erronka onartzen dutela diogunean**, zehazki esan nahi dugu badagoela gehiengo kualifikatu bat (kideen %75 gutxienez)

2 Ikusi *opus cit.* Jauregi eta Suberbiola (2015)

erronkari baietz esaten diona. Gehiengo kualifikaturik gabe egitasmoa ez da abian jartzen. Baina abiatuta ere, taldeak astero berretsi beharko du (iritzia fitxa baten bidez jasota) esperientziarekin jarraitu ala ez. Une batean, edozein dela ere, taldeak ez balu gehiengo kualifikaturik eskuratuko, esperientzia automatikoki bertan behera geldituko litzateke, azalpenik eman beharrik gabe.

- **Taldeak kide gutxi batzuk (eusleak) aukeratzen dituela diogunean**, gutxienez lau gauza esan nahi ditugu. Batetik, eusleak ez direla zeregin horretarako beren burua eskaintzen dutenak, baizik eta taldeak berak aukeratuta izaten direla, taldeak berak horretan jarri dituela. Beraz, ardura ez da eusleena beraiena, taldearena baizik. Muga bakarra du taldeak eusleak aukeratzeko orduan: ezin ditu aukeratu euskaraz mintzatzeko gaitasun txikia edo kamustua dutenak, haiek ezin izango bailukete zeregina bete erosotasunez, erraztasunez eta eraginkortasunez. Bestetik, esan nahi dugu eusleak ez direla izango kide guztien %20 baino gehiago. Proporzio honek eskatzen du, beraz, eusle bat bost pertsonako. Hirugarrenik, taldeak eusleak aukeratzekoan hilabeteko tarterako aukeratzen ditu. Txanda hori amaitutakoan beste eusle batzuk aukeratu ditu hurrengo hilabeterako. Ez dago arazorik taldeak bigarren txandan ere lehenbiziko txandako eusleak berak, denak ala bakan batzuk, aukeratzeko. Azkenik, erronkari baietz esateak eta bere horretan onartzeak berekin dakar onartzea eusle izatea taldeak hala erabakiko balu. Hala ere, aukeratutako eusleari beti eskatzen zaio oniritzia esperientzia abiatzeko.
- **Eusleari hizkuntza arau zehatza ezartzen zaio:** euskal elebakar gisa jokatu du eusle zereginari heltzen dion bitartean, hau da, beti egingo du euskaraz kide guztiekin, gaia edozein dela ere (informala edo lanekoa), ahoz bezala idatziz ere. Erronka-taldeko kideekiko baizik ez da aplikatuko hizkuntza araua. Arauak ez du balio taldez besteko edo kanpoko pertsonekin (beste sailtako langileekin, kanpoko bezeroekin, eta abarrekoekin). Hortaz, erronkari heldu dion taldeko kideekin eusleak hizkuntza arau aplikatzen du taldeko kideak bakarrik daudenean; adibidez, bilera batean taldeko bi kideekin ari bada, eta beste bi lankide talde horretakoak ez direnak, araua ez da aplikatzen. Eusleez besteko taldeko kideek ez dute hizkuntza arau finkorik, hau da, euskaraz edo erdaraz hitz egin dezakete, bakoitzak nahi duen bezala. Hori bai, ez zaie onartzen eska diezaieten eusleei erdaraz hitz egiteko edo idazteko. Hori dute muga bakarra eta eskatzen zaie esperientzian parte hartzeko baldintza gisa.
- **Eusleek eskatutako zeregina bete ahal dezaten**, ezinbestekoa da taldean kide guzti-guztiek euskaraz ulertzea. Ez da beharrezkoa denek

euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egitea. Ulertzea aski da, baina baldintza hori zorrotzasun handiz bete behar da. Eta zenbateko ulermen maila behar da? Ez dugu probarik pasatzen, baina erabiltzen dugun irizpidea da “elkarrizketa arrunt bat euskaraz ulertzeko” gai izatea.

- **Astero, fitxa baten bidez**, taldeak neurtuko du eusleek zeregina ongi, erdizka edo gaizki bete duten. Erdizka edo gaizki betez gero, protokolo bat abiatzen da, betetze maila bere onera ekartzeko. Orduan, eusleari eskatzen zaio zailtasun nagusia non duen identifikatzeko, eta ondoren, taldeari eskaera zehatz bat egiteko. Eskaera horrek bera lagundu beharko luke zailtasuna gainditzeko.

Antolaketa prozesuak hainbat urrats ditu, ez oso konplikatuak hala ere. Hasteko, badago aurreko fase bat non gutxieneko baldintzak betetzen dituen lantoki bat identifikatzen den. Baldintza horiek dira, besteak beste: kide guztiak euskaraz ulertzea, taldea ez handiegia ez txikiegia izatea (10-30 kideen artekoa), eta kideen arteko harremana agerikoa izatea. Taldera zuzenean jo aurretik, teknikariaren bitartez, zeharka jasotzen dugu halako ekimen batean parte hartzeari buruzko interesik balegokeen. Ondoren, arduradunen onespena eskatzen dugu. Hurrengo urratsa da talde horri biltzar batera deitzea egitasmoa aurkezteko eta haiek erabakitzeko egitasmoaren eskakizunak onartzen dituzten ala ez. Onartzekotan, biltzar horretan bertan aukeratzen dituzte eusleak botazioaren bidez, kide bat ere aukeratzen da zubi lana egiteko taldearen eta ikerlarien artean, eta azkenik mintzagrama galdetegia betetzen da (horrek biltzen du kide guztien arteko hizkuntza erabilera biko harremanetan).

Behin esperientzia abiatuz gero, astean behin eta astero, kide bakoitzak fitxa bat beteko du, non iritzia eman behar duen eusleen hizkuntza arauaren betetze mailaz, eta baita ere adierazten duen ea beste astebetez jarraitzeko gogoia duen ala ez. Taldeko koordinatzailea fitxa horiek guztiak biltzeaz arduratzen da, eta, gero, ikerketa taldeari igortzen dizkio. Ikerketa taldeak datuak sintetizatu ondoren emaitzak taldeari itzultzen dizkio koordinatzailearen bidez. Eusleen zeregina betetzean akatsak ikusiz gero, koordinatzaileari pasatzen zaio enkargua “protokoloa” abiatzeko. Bi urrats ditu protokolo horrek. Lehendabizi eusleak zehaztu behar du laburki non edo zertan duen zailtasuna, eta bigarrenik, taldeari zerbait eskatu behar dio bera laguntzeko zailtasuna gainditzeko. Esperientzia bukatzean, bi hilabete eman ondoren alegia, berriz luzatzen zaio taldeari mintzagrama galdetegia, postaren bidez. Taldeko koordinatzaileak ardura du erantzunak bildu eta ikerketa taldeari igortzeko. Esperientzia bukatu eta hiru hilera hirugarrenez luzatzen zaie mintzagrama galdetegia. Era horretan ikerketa taldeak hiru argazki konparagarri ditu taldearen hizkuntza erabileraren bilakaeraz. Lehen argazkiak taldearen abiapuntuko egoera adierazten du, bigarrenak aditzera ematen du taldearen hizkuntza erabileraren bilakaera esperientzia tartean, eta azkenik hirugarrenak, ikustarazten du zer gelditu den, zer galdu den esperientzia bukatu eta handik hiru hilera.

Ikusten denez, metodologiaren eskakizunak eta antolaketa moduak ez dira gehiegizkoak ez eta korapilatsuak ere. Zinez saiatu gara metodologia ulerterraza izan dadin, eta kideek neurrikoa senti dezaten eskatutako ahalegina. Horregatik, hain zuzen ere, metodologiak osagai gutxi eta sinpleak izan arren, haietako bakoitza funtsezkoa da jarduerari osotasuna eta koherentzia emateko. Piezaren bat behar bezala zaindu ezean, kalte handia egin dakioke osotasunari.


Beraz, oraino aurkezturikoa izango litzateke metodologia estandarra, edo guk “esperientzia jarraituak” deiturikoa. Ordea, 2015. eta 2016. urtetan egindako bigarren aldiko ikerketetan aldaera bat probatzeari ekin genion, eta “esperientzia tartekatua” izenaz ezagutu genuen. Metodologia estandarren osagai guztiek bere horretan irautez bazuten ere, pentsatu genuen bi hilabeteko esperientzia jarraituan eman beharrean aldi txikiagotan eta atsedean aldiez tartekatua eman zitekeela. Honako diseinu hau egin genuen:

- Hilabeteko esperientzia
- Hiru asteko atsedean aldia
- Bi asteko esperientzia
- Hiru asteko atsedena
- Bi asteko esperientzia

Ikuskizun genuen ea esperientzia denboran zehar luzatzeak hobetuko lituzkeen metodologia estandarren emaitzak, ea arinduko lituzkeen esperientziaren harroaldia eta astintze handiaren ondorengo galerak euskararen erabilera³. Aurrerago, emaitzen atalean aztertuko dira zehazki zer alde ikusten ditugun formatu estandarren eta aldaera honen artean.

3 Aipaturiko 2015. urteko liburuan aditzera eman bezala, ikerketaren lehen aldiko emaitzek adierazi zuten esperientzia bukatu eta hiru hilera euskararen erabilera 7,2 puntu egin zuela behera, Ordea, hala izanda ere, euskararen erabilera 11,3 puntu handiagoa zen oraindik esperientziaren hasieran baino. Edonola ere, beherako joera hori moteltzeko eta are joera aldatzeko agian, diseinatu genuen “esperientzia tartekatua” izeneko moldea.

3.



USTE TEORIKO NAGUSIAK

Badira argudio luze hausnartutakoak metodologiaren osagai guztien atzean, eta eman emango dugu haien berri hurrengo lerroetan. Ordea, gure hausnarketen marko osoa sakontasunez dago landuta 2015. urteko argitalpenean⁴. Orain, marko osoa agertu gabe, ideia nagusiak besterik ez ditugu gogoratuko, lehen lan hartako marko teorikoarekiko osagarriak diren zenbait erreferentzia interesgarri ere gehituz⁵.

3.1.

Taldetasuna

Hizkuntza erabileraz ari garelarik, ezin dugu ikuspegi banakakorik hartu, fenomeno bat ematen baita gizarte-elkarrekintzaren barruan, komunikazio egoeretan, bi gutxienez edo kide gehiagoren parte hartzeaz. Elkarren artean uztartzen diren gizarte-baldintzak gertatu behar dira solaskideek hizkuntza jokaera bat ala beste har dezaten, eta are gehiago finkatutako hizkuntza jokaera bat utzi eta beste bati heltzea kontua denean.

Hizkuntza jokaera ez dago inoiz norbere esku soilik. Hizkuntza jokaera beti da gure arteko jokaera mota bat, eta bai hiztunak eta bai solaskideak berak ere badituzte biek zeregin osagarriak jokatu beharra komunikazio ekintza arrakastaz osa dadin. Arketipikoki hitz eginda, euskaraz mintzo den kide baten eta euskaraz ulertzen duen beste kide baten arteko jarduera aldi berekoa da hizkuntza erabileraren gutxieneko unitatea.

Hala da, era berean, heldu baten eta haur jaio berri baten arteko komunikazio mugatua bera ere. Jerome Brunerrek (1990) aipatu zuen bezala, hizkuntza bidezko komunikazioak oin hartzen du are

4 Ikusi *opus cit.* Jauregi eta Suberbiola (2015)

5 Erreferentzia bibliografikoei dagokionez ere berdin jokatu da: lan honetan 2015ekoari gehitutakoak baino ez dira zerrendatu. Hemen darabilgun hausnarketa teorikoaren marko osoaren iturriak kontsultatzeko, jo beza irakurleak lehen lan hartara.

oinarrizkoagoa den ekintzen bidezko komunikazioan. Bizigune bat partekatzen duten kideek beren ohiko jokaerez ehuntzen duten eremua bihurtzen da interpretagarri, esanahidun eta zentzudun. Sare partekatu horren bidez aurreikus daitezke beste kideen hainbat ekintza eta suma daitezke haien hainbat asmo. Hitzak azkenean txirikordatzen dira eguneroko jarduera aurreikusgarrien artean, eta hala oraino hizkuntza mintzo ez den umea gauza izan daiteke soinu arrotzak hitz esanahidun bihurtzeko. Hala, zenbat eta hitz gehiago ezagutu, ulertu eta are erabili, orduan eta hitz gehiago barneratzeko gauza bihurtzen da ume txikia. Horrenbestez, non heldu baten mintzo azkarra baina aldi berean moldatua eta ume txiki baten ulermen mugatua baina eraginkorra ere, biek bat egin eta aditzera ematen baitute nolakoa den hizkuntza komunikazioaren arketipo oinarrizkoa.

Ugari dira arketipo honen aldaerak, eta gure kasuan, zehazki, kontuan hartu behar da solaskide bat eta bestea helduak direla, haietako bakoitzak baduela hizkuntzaren batean edo bestean aritzeko (edo batean baino gehiagotan) hizkuntza gaitasuna garatuta, eta egon badagoela hizkuntzen artean nolabaiteko lehia, funtzionaltasuna norik eskuratuko jokoan dabiltzanez gero. Berezitasunak berezitasun, gure kasurako ere, arketipoa guztiz baliagarria da. Orduan, esan genezake euskararen erabilerari buruz hitz egitekotan, gogoan hartu beharko genukeela gutxien-gutxienik kide bat euskaraz ulertzen duena (ez hitz egin arren), eta beste kide bat aurrekoari euskaraz mintzo zaiona.

Handik dator gure metodologiak eskatzen duen aurreneko baldintzaren ezinbestekotasuna: eremu kolektibo baten kide batzuk euskaraz mintzatuko badira, gainerako guztiek gutxienez ulertu behar dute. Egia esan, solaskide batzuen ulermen maila txikia izanda ere, baliteke kide batzuk haiei eta haiekin euskaraz aritzea, eta hor da hain zuzen ere egun lantzen ari garen beste bi metodologiaren oinarria, *ulerrizketaren* eta *uler-saioena* hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, *eusle* metodologiako komunikazio erosoago, zabalago eta azkarragoa ere bilatu nahi genuenez, kideen ulermen mailaren eskakizuna altu samar jarri genuen. Izan ere, esperientzia hauetan aritzekotan, kideek gai izan behar zuten euskaraz abiatutako elkarrizketa arrunt bat ulertzeko.

Zergatik ulermenaren baldintza kide guztiek bete beharra? Euskarazko mintzatzaileentzat gizarte eremu homogeen, eroso eta etenik gabea eraiki nahi genuelako. Kide guztiek ulertuko ez balute, eusle gisa ariko zirenek kasu batzuetan hizkuntza arau bat aplikatu beharko lukete kide batzuekin eta gero beste batzuetan beste hizkuntza arau desberdina beste kideekin. Hala, sartu-irten etengabeetan aritzera bultzatuko genituzke eusleak (egunerokoan euskal hiztunek egin behar izaten dutenaren pare aritzera, alegia). Gora eta behera, irten eta sar, orain bai eta orain ez dabilenak behar baino ahalegin handiagoa egin behar luke. Ez zen gure asmoa eusleak ahalegin maximora eramatea, ez ahitzea, ez nekaraztea, baina bai indartzea, gogoz betetzea eta bidea erraztea. Hizkuntza jokaera berri batek behar du jarraikortasuna, behin eta berriz errepikatzea, konstantzia, baldin eta ohitura eta berezko joera bihurtuko bada. Kide guztiek euskaraz ulertu beharra eskatzerakoan ingurune txiki eta babestua sortu nahi genuen, ahalbidetuko lukeena eusleek hizkuntza jokaera homogeen eta iraunkor samarra, hizkuntza ohitura berria finkatze aldera⁶.

6 Hala ere, bazeuden etenak eremu horretan, eremua ez zen guztiz homogeenoa. Izan ere, hizkuntza araua taldeko kideekin baizik ez zen aplikatzen, ez zion ordea eragiten taldez besteko lankideekin edo bezeroekin, esaterako, egon



Badu taldetasunak, aurrekoaz gain, osagai animiko garrantzitsua ere. Euskaraz aritzekotan, hizkuntza gaitasunari loturiko baldintzez gain, badira gogoari, jarrerari eta barne sentipenei loturiko talde baldintzak ere. Talde batean gehiengoak erabakitzen duenean, eta haren bidez adierazten duenean ongi ikusten duela eta onartzen kide batzuek euskara hutsez egitea, jokaera horri bide erraz, zabal eta legitimoa zabaltzen zaio parez pare. Jarrera eta jokaera eragozleak agian guztiz desagertzen ez diren arren, bederen neutralizatuta gelditzen dira, haien indarra moteltzen da. Halako eremu batean euskaraz jarduteak ez du giroa gaiztotzen, ez ditu kideak elkarrengandik aldentzen, ez du deserosotasuna bazterretan barreiatzen; aitzitik, halako jokaerak taldea egiten du, kideak elkarrekin lotzen ditu, eta elkarrekin gogoko zerbait lortzearen sentsazioa sentiarazten du. Handia da talde giro nagusi batek kide bakoitzari helarazten dion mezua eta mezu horrek kide bakoitzaren jokaeran duen bultzadan eta eraginean.

Hortaz, eusle batek eroso, lasai eta konfiantzaz jokatu badu, jakin behar du bere jokaerak harrera atsegin eta zabala jasoko duela beste taldekideen aldetik. Gogoan hartu behar da kasu askotan urtetan finkatutako ohitura aldatzen ari garela; aitzakia edo motibo indartsua behar da horretarako eta taldearen erabakiak hori ere badakar. Halako ziurtasun gabe, uzkurtasuna eta atzera egitea espero daiteke balizko euslearengandik. Oso gutxi dira, badiren arren, solaskidearen jarrera on edo txarrari men egin gabe, bereari kosta ahala kosta eusten diotenak. Gure metodologiak, aldiz, ez du eskatzen jokaera heroikorik, baizik zentzuzko jokaera neurtua (ahalegina eskatzen duena baina baldintza sozialak prestatzen dituen ahalegina eramangarria izan dadin). Hortaz, gure arreta ez da soilik euskaraz ariko diren horiengana, hots, eusleengana zuzentzen, baina gainerako kideengana ere. Talde osoari dagokio giro adeitsu eta harkorra sortzea. Hau lortze aldera, metodologiak ezartzen du talde osoaren erabaki kualifikatua (kideen %75ek baietza ematea), bai esperientziari hasiera emateko, baina baita ere, eta hau oso garrantzitsua da, prozesu osoan zehar gehiengo nabarmen hori berresteko ere⁷. Hori asteroko fitxen bidez lortzen da.

3.2.

Hizkuntza jokaera: indar-jokoa

Hizkuntza ohitura da gizarte sistema batek eta bere kideek aurkitu duten jokaera orekatu eta egonkorra. Indar ugariren arteko lehia eta jokoak emaitza funtzional bat mamitzen duenean, emaitza edo jokaera horixe behin eta berriz errepikatzeko joera izaten da, ohitura edo arau in-

zitekeen harremanari. Beraz, talde barruko kideekin jokaera homogenea eduki zezaketen eusleek, baina laneko beste egoera batzuetan, enpresa edo lantegiko taldez besteko lankideekin aritzerakoan, ez zegoen ziurtatzerik ez euskarazko jokaeraren homogeneotasunik ez iraunkortasunik.

⁷ *Eusle metodologian* taldea zein den hasieratik bertatik zehatz mehatz identifikatu behar da, kideen izen-abizenekin. “Gu”, esperientzian honetan abiatuko garen hauek, nortzuk diren aldeaz aurretik jakin behar dute bai protagonistek, bai esperientziaz kanpoko beste lankideek, bai lantegiaren arduradunek eta bai egitasmoaren arduradunek ere. Taldea definitzea da lehenbiziko egitekoa. Ondoren, euslearen hizkuntza-araua talde horretako barruko harremanei aplikatuko zaio eta ez besteri.

plizitu bihurtu arte. Hizkuntza ohitura sistema baten ADN kulturalaren parte bihurtzen da. Behin eta berriz erreproduzitzen da, taldeari nortasuna, erosotasuna, ziurtasuna, erraztasuna, naturaltasuna eta eraginkortasuna ematen dizkiolako.

Sistema orok orekarako joera izaten du. Kaosa ordenatzen ez den arte, ez da sistema bat osatzen. Zeren sistema adigaiak berekin aditzera ematen baitu ordena, koherentzia, egitura, logika, eta baita ohitura bera ere. Honek guztiak zentzua edo logika ematen dio sistema bati. Hala, kideen jokaerak aurreikusgarriak dira, logika, arau, tradizio edo ohitura bati jarraitzen zaiolako. Eta horregatik beragatik sistema batek beti joko du bere ordena, ohitura eta egitura mantentzera, egonkortzera eta iraunkortzera.

Eta hala izanda ere, ordea ezin da behin ere egonkortasun eta oreka perfektua eta behin betikoa eskuratu. Nahi eta ezin amorragarri bat izaten da. Bizitzaren jarioak berekin beti dakar hari mutur berririk, ezuste handi eta txikirik, finkatutakoaren higatzerik, eta orduan beti dira aukerak agertzen, bide berriak urratzen, ikuspegi zaharrak moldatzen edo aldatzen. Oreka behin eta berriz eraberritu behar da, eta askotan eremu beraren egokitzapen eta moldaketa handiak gertatu ohi dira. Sistema batek orekarako joera eta beharra duen bezala, beti du egoera, fenomeno eta ekimen berriei moldatu eta egokitu beharra ere. Finkatutakoari eustearen eta berrira egokitzearen arteko lehia amaigabea dhardu sistema baten bizitzak.

Badira jokaera eragozleak sistema baten ohitura zaharrari sutsu eusten diotenak. Badira jokaera urratzaileak sistema baten ohitura zaharra bertan behera utzita era berriari eusten diotenak. Badira, izan ere, jokaera egokitzailak sistema bateko une bakoitzean nagusitzen ari den indarrari moldatzen zaizkionak. Gaussen kurba normala erabiliko bagenu ilustratzeko jokaera hauen banaketa populazioaren artean, esango genuke eremu nagusi eta zentrala jokaera egokitzailak hartzen dutela, eta ezker eta eskuin muturretan ageri dira alde banatan eremu txikiak hartuz jokaera eragozleak eta jokaera urratzaileak.

Eremu batean hizkuntza ohitura aldatzeko, behar dugu kide batzuen jokaera eragozlea ez dadin oso handia izan (nolabait haien diskurtsoa funtsik gabe utzita), behar dugu era berean jokaera urratzaileak kide gutxi batzuek gauza dezaten, eta azkenik behar dugu bide zabal eman jokaera egokitzailari.

Gure metodologian eusleek gorpuzten dute jokaera urratzailea. Ziurtatu egiten da jokaera eragozleek tarte txikia izango dutela, erronka berriaren aldeko gehiengo kualifikatua eskatuta. Jokaera eragozleen atzean egon daitezkeen hainbat diskurtso neutralizatzen dira taldeak bere gain edukita esperientzian jarraitzeko erabakia, bai eta eusle gisa ari ez diren kideek gaztelaniaz hitz egiteko aukera edukita ere. Euskaraz jokatu nahi ez duenak ez du egingo, baina egin nahi duten guztiak (gehiengo kualifikatua) egin dezakete arazorik gabe. Jokaera eragozleak neutralizatuta eta jokaera urratzaileak onartuta ateak zabal-zabalik gelditzen dira kide gehienek jokaera egokitzaila ager dezaten, hizkuntza jokaera berrira moldatuz.

Jokaera egokitzailaren izaera erraz azal daiteke Festingerren (1975) disonantzia kognitiboaren teoriaren bidez. Teoria horrek, funtsean, aurretik aipatu ditugun bi printzipio sistemikoak, zein-

tzuk baitira orekaren printzipioa eta ezustearen printzipioa, gogoan hartzen ditu. Hala, Festingerren aburuz, sistema batean ordena, oreka eta koherentzia galtzen denean, bere hitzetan “kontsonantzia”, (ezustearen printzipioak azal lezake zerk eragiten duen maiz sistema baten kontsonantzia galtzea), orduan halako desatsegina, halako egoneza sortzen da kideen artean edo kide bakarraren baitan (Festingerrek honi “disonantzia” esaten dio). Disonantziak indarra, motibo eta grina sorrarazten du berriro ere kontsonantzia eskuratzeko (orekaren printzipioa). Disonantzia baztertzeko eta kontsonantzia eskuratzeko moduei buruz, Festingerrek kontuan hartzen du osagaien arteko indar-jokoa, eta hala kideak edo kideek beti aukeratuko dute lehian diren osagaie-tako indartsuena, eta ahulena baztertuko. Beraz, osagirik indartsuena lehenetsita eta ahulena baztertuta berreskuratzen dute kideak eta kideek oreka berriro. Izaten denean disonantzia uste baten eta jokaera baten artekoa, normalean jokaera da alderdirik indartsuena eta ustea ahulena. Ohikoagoa da usteak jokaerara moldatzea, jokaera usteetara baino.

Indar jokoaren dinamikari kontu egiteak garrantzia du. Erdal elebakar baten eta euskal elebidun arteko lehian eta indar jokoan zein da osagai indartsua eta zein ahula? Erdaraz jokatura bi aldeek elkar uler dezakete. Euskaraz arituta, ordea, ezin beren artean elkar ulertu. Beraz, egoera diso-nanteren bat sortuko balitz, garbi ez dagoelako zein hizkuntzaz jardun, orduan oreka beti erdaraz jokatura eskuratuko litzateke, hori delako osagai indartsua (komunikazioa ziurtatzeko balioa due-lako, besteak beste). Era naturalean, orduan, euskal elebidunari sortzen zaio barnean egokitzeo grina, erdal elebakarrarenera hurbildu nahian. Egokitzeo bideak beti hartzen du ahularen bidetik. Hark eman behar du amore. Hura egokitzen da. Indartsuaren eta aldagaitzaren aurrean men egi-ten du ahulak, hartara eta harengana egokituz.

Logika bera aplikatuta baina guztiz iraulita, eusleak bihurtzen ditugu gure metodologian osagai indartsuenak, beraiek ezin dutelako gaztelaniaz aritu (erronka onartzeak hizkuntza arau hori onartzeak dakarrelako). Hala kontuak, eusleei ez, baina gainerako kideei sorrarazten zaie ego- kitzeko beharra, eta disonantzia gaudituko bada (elebitako elkarrizketak disonantzia sortzaile peto-petoak baitira) beraiek egin behar dute eusleen aldera, euskaraz jardunda, eusleek ezin dutelako beste kideen aldera egin erdaraz jokatura. Era horretan indar jokoak iraultzen dugu, eus- kara eta eusleak osagai indartsu bilakatuz, eta gainerako kideen jokaera egokitzaileak euskararen aldera makurtuz.

Bestaldetik, are indartsuago bihurtzen dugu eusleen posizioa, euren borondatezko jarduna izan ordez, taldeak berak eskatutakoa denean. Atribuzioaren teoriak (Heider, 1958; Kelley, 1971; Mos- kowitz, 2005) ongi azal lezake kontu hau. Haren arabera, joera edo beharra izaten dugu gizakiok beste gizakideen ekintzen atzean dauden arrazoiak, motiboak edo asmoak antzemateko. Etengabe galdetzen diogu geure buruari: halako ekintza bat horrek egin duenean, zergatik egin du? Asmo onez ala txarrez egin du? Kalte egin nahi dit edo ez? Badirudi, hurkoari egozten dizkiegun asmoek badituztela geure baitan oso aldarte desberdinak sorrarazten. Kontsideratzen badugu solaskideak guregana egokitzen ahal duela baina ez dela egokitzen NAHI EZ duelako, baliteke gure baitan harekiko erresistentziak eta gaitzespen sentipenak erraz ernatzea. Era berean, kontsideratzen badugu solaskideak guregana ez dela egokitzen benetan EZIN duelako, orduan harekiko enpatia

eta uste ona nagusituko zaigu, eta ez dugu arazorik izango ahal izanez gero gu harengana egokitzeke, berak guregana egokitu ezinean dabilenez. Lehenengo kasuan agian ez dugu egokitzea beste erremediorik izango baina egokitze horretan amorrua eta eragozpena izango dira nagusi. Bigarren kasuan, ordea, era gozo, natural, adiskidetsu eta ahaleginik gabeen egokituko gara.

Atribuzioaren teoria gure metodologiara ekarrita, NAHI asmo oro kentzen diegu eusleei, beren jardunaren erantzuleak haiek ez, baizik taldea bera baita, taldeak eusleak hautatu dituen neurrian. Beraz, eusleek beste kideekin erdaraz egiten ez badute, ez da NAHI EZ dutelako, baizik eta EZIN dutelako, taldearen erabakiak aginduta. Horrela eginda, eusleei erantzukizun pertsonalez husten zaie. Eusleen ezintasun ageriko horrek errazten du beste kideen egokitze natural eta adeitsuua eusleen egoerara. Egokitze horrek euskaraz izan behar du ezinbestez. Horregatik komenigarria da eusleak taldeak berak aukeratuak izatea. Ez da komenigarria, hortaz, eusleek beren burua eskaintzea.

3.3.

Erabilera bide, ez emaitza

Euskarazko jokaera euskarazko jokaeratik bertatik elikatzen da, indartzen da eta hauspotzen da. Hizkuntza erabilerak berak naturaltzen du hizkuntza erabilera, eremuak zabaltzen ditu, jokaera bera finkatzen, sakontzen eta ohiturazko bihurtzen du. Ez dago beste biderik hizkuntza ohitura finkatzera iristeko hizkuntza jokaera bera behin eta berriz erabiltzea baizik. Hizkuntza ohituraren hazia ez da orduan hizkuntza jokaeraren beraren gauzatzea baizik, eta ohitura sortzera daraman prozesua ez da hizkuntza jokaeraren beraren etengabeko gauzatzea baizik.

Aurreko planteamendua zirkularra da, fenomenoaren birsortze eta iraute indarra ez kanpoan baina bere baitan dago. Hala berean, konparazio baterako, bizitza fisikoa ezin da kanpotik sortu, bizitzak bere baitan du bizitza bera erreproduzitzeko mekanismo eta ahala. Bizitzak bizitza dakar, baina hainbat baldintzak zaindu behar dira ingurunean, bizitzak bere burua erreproduzitzeko mekanismoak abia ditzan eta haren emaitza gara dadin (Maturana eta Dávila. 2008).

Era berean, hizkuntzaren bizitza erabilera bera da, eta bizitza hori ezin da erreproduzitu, garatu, indartu eta heldutasunera iritsi, ezpada baldintza egokiak eman direlako erabilera bera behin eta berriz, modu etengabeen gauzatzeko. Berau ez soilik ikuspegi zirkularra, bada ere ikuspegi organismikoa: hizkuntzaren bizitza organismo bizidun baten pare garatzen da.

Ikuspegi organismiko honi gatzazkiolarik, garrantzia du nabarmentzeak organismo bizidun batek behar dituen inguru-baldintzak, ez direla soilik kanpotik sortuak, zoriz eta organismoaren eskutik erabat kanpokoak, baizik eta organismoak berak ere bere ekimenaren eta berezko jardueraren bidez sortzen dituela bizitzarako baldintza egokiak.



Berezko prozesuetan hizkuntza erabilera da hizkuntza erabilera bera finkatzen duena, kideen hizkuntza gaitasuna hobetzen eta garatzen duena, eta kideen hizkuntzarekiko estimu eta balioa sorrarazten duena, talde identitatea eta komunitate sentipena ekartzeaz gain. Stephen Krashen (1985) jarraiki, hizkuntza ikastea ez da erabileraren aurretik dagoen etapa bat. Aitzitik, hizkuntza ikastea (norberak duen hizkuntza gaitasuna garatzea eta hobetzea) da erabileraren berezko ondorio eta azpiproduktua. Hizkuntzak ikastearen funtsa ez da arauak ikastea (honek batzuetan lagun dezakeen arren, beste askotan ez du batere laguntzen, eta are erabilerarako traba nagusi bihurtu, edonola ere izatekotan ez da ezinbesteko osagaia), ordea bai da beharrezko eta are ezinbesteko ere hizkuntza ikasleak aldamenen solaskide batzuk edukitzea xede-hizkuntzan mezu ulergarriak egingo dizkietenak, eta behar denean hizkuntza era errazean eta erritmoa ohi baino mantsoagoan erabiliko dutenak ulergarritasuna ziurtatzearen aldera. Askotan, irakaskuntza egoeretan, solaskide hori hizkuntza irakaslea bera da, eta beste batzuetan zeharka erregulatzen da pelikula, liburu, irrati edo bestelako grabazioen bidez baliatuta. Baina, irakasleek eta materialek bezala, zeregin bera bete dezakete lankideek, adiskideek eta edozein hiztunak. Horretan, erabilerara testuinguru horretan hain zuzen ere, garatzen du hizkuntza gaitasuna hizkuntza ikasleak edo hizkuntza hobesleak.

Uste dugu antzeko ikuspegia iradokitzen duela Mikel Zalbidek honako hau planteatzen duenean:

“Lehendabizi ikasi, gero egin” paradigmatik “eginez ikasi” formulaziora pasatu behar gara eta eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun eskema berria eratu behar dugu (Zalbide M. *Bat* 2016, 100(3):10-192).

Eusle metodologian hizkuntza jokaera zehatz eta argia ezartzen da. Jokaera berri horretarako gonbitea taldearen kanpotik iristen da, egitasmoaren bultzatzaileek eginda. Gero taldeak berak onartu behar du aipaturiko jokaera. Jokaera hori onartu eta aplikatzerakoan abiatzen da esperientzia, ez lehenago. Hizkuntza erabilera jakin bat kokatzen da, beraz, prozesuaren abiapuntuan, eta prozesu osoaren bihotz eta ardatz bihurtzen da. Ez dago erabilerako bidezidorrik, erabilera bera da erabileraren bultzatzaile eta elikatzzailea. Erabileraren hedatze eta gauzatze horrek berekin dakar fenomeno ugari astintzea: kideen hizkuntza hautematea aldatzen da (ulertzeko eta mintzatzeko norbere gaitasunari buruzko usteak, komunikazioa euskara hutsez egiteko egingarritasunari buruzko aburuak, urtetan erdalduntzat jo den lankide batek euskara uste baino askoz gehiago ulertzen zuela konturatzea...), kideen hizkuntza gaitasuna hobetzen da (batzuek jarduera aktiboaren eraginez, eta beste batzuek jarduera pasiboaren bidez, alegia batzuk mintzatuz eta beste batzuk entzunez, mintzamenen eta ulermenean aurrerabideak ematen dira), kideen hizkuntza jarduera erosoago, errazago eta ohikoago bihurtzen da. Horrela ba, puntu honetan azalduko da labur genezake bere izenburuarekin. Euskararen erabilera baldin bada bilatzen duguna, erabilera hori bera hartu behar dugu “bide” moduan, eta aztertu zein baldintzatan zabal litekeen, nola, eta abar, baina erabileratik bertatik abiatuz, eta ez beste zerbaiten “emaitza” gisa etorriko denaren zain egonda.

Beste hitz batzuetan, esan genezake: “euskarazko erabilera, nondik?” bada, erabileratik bertatik, erabileraren garapen modura. Bi hitzetan laburtu nahi izatera: “erabilera, erabileratik”.

3.4.

Txikitik handira

“Txikitik handira” leloak aditzera eman nahi du jardueraren koste energetikoa gogoan hartu behar dela prozesua bururaino eramateko. “Gogoko tokian, aldaparik ez” esan ohi da eta ez arrazoirik gabe. Badirudi jarduera orok, bereziki berria eta neurri handi batean urratzailea denean, nolabaiteko ahalegina, lana eta saiakera eskatzen duela. Ahalegin horren hautematea oso lotuta izaten da norbere gogoarekin. Hala, den ahaleginik handiena txiki eta eramangarri irudituko zaio horretarako gogo bizia duenari, bai eta atzekoz aurrera ere, ikaragarritzko ahalegintzat edukiko du zerbait egiteko gogo gutxi duenak. Ikuspegi honetatik, beraz, ez da sekula objektiboa izaten ahaleginari buruzko hautematea.

Hala ere, gure abiapuntuko premisa da *eusle metodologian* abiatzeko kideek ez dutela ikaragarritzko motibazioa eduki behar. Gogoan dugun irudi estandarrek bat egiten du Gaussen kurba normalarekin, hots, kide gehienak neutro samarrak ageri dira, ez nabarmen euskararen alde, ez kontra ere. Kurba normalaren kasuan bezala, izango dira kide batzuk euskararen alde nabarmen jotzen dutenak ere, baina ez dira kide asko izango. Era berean, beste muturrean aurkituko ditugu gogorik ez duten kide batzuk, are kontra direnak ere, baina hauek beste muturrekoak bezala oso gutxi izango dira.

Gure motibazio estrategia hainbat puntutan oinarritzen da:

- **Proposamenaren aldeko gehiengo kualifikatua eskuratzea** (nolabait, posizio aldeko eta neutroan dauden kideak bilduz) nekez ezetz esan dakioken eskaera bat onartzen dutelarik⁸. Proposamenari baietza emateko edo ezetza zailtzeko mekanismoak honako puntu hauetan oinarritzen dira:

1) Sinpletasuna:

- Bilera bakar bat, esperientzia abiatzeko
- Astean minutu pare bat jarraipen fitxa betetzeko
- Kide guztiak ez, baina gutxi batzuk (%20) euslearen zereginean
- Ez dago egunerokoez besteko ezer egin beharrik, hizkuntza araua

⁸ Esan beharrik ez da, izango direla hainbat lankide talde, eusle metodologiarako baldintza bete arren, hau da, kide guztiak euskara ulertzeko gai izatea, ez dutenak izango gehiengoaren gogo nabarmen bat erabilera hori gehitzeko, dinamika berri bat probatzeko edo halako erronka bati heltzeko. Bistan da, talde horietan halako dinamikarik ezingo da garatu.

guztiz uztartzen delako eguneroko jardueretan. Beraz, ez dago klaserik, ez saiorik, ez denbora edo dirua eskatzen duen bestelako talde-ahaleginik edo ahalegin pertsonalik.

- Ikerketarako behar diren datuak minimoetara eramanda daude (hiru neurketa bost hilabeteko tartean, haietako bakoitzak bost minutu baino gehiago eskatzen ez duena)

Honek guztiak erosotasuna eragiten du.

2) Ziurtasuna:

- Taldeak astean behin jarraitzeko erabakia berretsiz edo ezetsiz bere esku du prozesuaren kontrola.
- Aurrera egiteko gehiengo kualifikatua behar denez gero, taldeak ziurtasuna du ez dela egingo gehiengo argi batek nahi ez duen zerbait
- Eusle ez direnek gaztelania erabiltzeko aukera dute, hala nahi iza-nez gero.
- Ez dago zergatien eta arrazoen azterketarik, eta ez da inolako azalpenik eman beharrik, ez esperientzian sartzeko, ez uzteko ere.

Honek guztiak konfiantza eragiten du.

3) Distiratasuna:

- Unibertsitateak zuzenduriko ikerketa dela ikustaraztea.
- Erakunde babesleen garrantzia sentiaraztea (Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra, Emun, Elhuyar, AEK-Aize, Artez...)
- Ikerketa berritzaile eta indartsu baten partaide sentitzea.

Honek guztiak prestigioa eta balioa eransten dizkio zereginari.

→ **Behin baietza eskuratuta urrats txiki bat egiteko**, urrats horren gauzatzeak berekin ekar ditzake bi mekanismoen suspertzea:

- 1) Jarduera laburrak oztopo aipagarririk gabe aurrera egiten duenean, jardueraren beraren *erabilera-balioa* handitzen da. Jardueraren arrakasta bera bihurtzen da aurrera jarraitzeko gogoaren iturri eta akuilu (Csikszentmihalyi, 1997).
- 2) Cialdinik aipatutako koherentziaren printzipioaren arabera, urrats txiki bati baietza emateak aukerak handitzen ditu hurrengo urratsei ere baietza emateko. Aurrena baietz, eta gero ezetz esatea jende askorentzat inkoherentzia irudia da, edo seriotasun falta. Bere burua hitzeko eta pertsona seriotzat badauka oso litekeena hasieran hartutako bideari eustea balizko disonantzia kognitiboa murrizteko (Cialdini, 2001).

Horrela, jardutearen arrakastak eta arrakastaren atseginak aurrera bultzatzen ditu kideak, etengabeko zikloetan. Prozesuak berak halako gogoia pizten ez badu, eta egoerak luze irauten badu, nekez eutsi dakiokete kideak horretan lehiatzeari, beren hasierako motibazioa oso altua izanik ere. Ordea, prozesuak halako elikagaia sortzen duenean, bere eskuz eusten dio mugimendu osoari, nahiz eta kide horien abiapuntuko gogoia handiegia ez izan.

3.5.

Denboraren kudeaketa: errepikapena eta atsedena

Hizkuntza jokaera urratzaileak denbora tarte bat behar du erakusteko jokaera egingarria eta eramangarria dela. Honek aldarazten ditu kideek beren buruaz dituzten hizkuntza hautemateak. Esperimentazio tarte horretan oso bizirik dira sentipenak, ernetasuna, kontzientzia, behaketa eta arreta. Tarte honetan ageri dira zailtasunak, eta era berean zailtasunak gainditzeko norbere estrategia eta baliabideak ere azaleratzen dira. Irtenbideak bilatu behar zaizkio bidera agertzen den oztopo orori. Talde osoak bere burua egokitu behar du egoera berrira. Egokitzeak arrakasta lortzen duenean, hari bigarren denbora tarte bat jarraitu behar zaio: finkatzeko garaia.

Finkatze garaian, etengabeko errepikapenak egiten du lanik handiena. Fase honetan, hizkuntza jokaera berriak berritasuna galdu du –ez guztiz hala ere-. Arreta eta ernetasuna erretiratu egiten dira, eta haien ordez iraunkortasuna eta erregularitasuna behar dira hizkuntza jokaera berari behin eta berriz eusteko, zeren horrek egingo baitu jokaera berria jokaera sakon, automatiko, erraz, natural eta hitz batez esateko, ohikoa. Errepikapen lan isil eta iraunkor horri esker sortuko baita jokaera berritik finean hizkuntza ohitura sustraitua. Aurreneko fasea bezain distiratsu eta agerikoa ez izan arren, aurrekoa bezain garrantzitsua da, eta alderdi askotatik begiratuta, aurrekoa baino arriskutsuagoa da, zeren monotonia, asperdura eta arreta falta moduko aldarreak erraz heda baitaitezke, lehengo inertzia eta ohitura zaharrek zarrapa-zarrapa hotsik egin gabe galdutako eremua berreskuratzen duten bitartean.

Edonola ere, bi hilabeteko denbora tartearen kontenplatu dugu gure metodologian bi fase hauek eman daitezkeen. Zaila da, ordea, denbora tarte honek aukera berberak ematea hizkuntza tipologia guztietako harremanei. Seguru asko, esperientzia aurretik euskaraz egiteko nolabaiteko joera zutenek, nahiz eta joera hori ahula izan, bi hilabeteko tartearen aski izan dezakete prozesu osoa burutzeko, zeren tarte gehiena honezkero duten hizkuntza joera finkatzeko erabil baitezakete. Berriz, esperientzia aurretik erdararako joera zutenek bi hilabeteko tartearen gehienbat lehen faserako erabil dezakete (hizkuntza jokaera berriaren egingarritasuna eta eramangarritasuna esperimentatzeko), baina seguru asko, motz geldituko zaie bigarren fasea burutik burura egiteko.


Ez dugu uste *Eusle metodologiak* bere hutsean eta soilean behar adinako ahala duenik hizkuntza egoera irauli eta euskarazko ohitura goitik behera finkatzeko, ez behintzat kasu eta egoera

guztietan. *Eusle metodologia* harremanak euskalduntzeko estrategia osoa baino gehiago, baliabide indartsu gisa irudikatzen dugu guk, zeina uztartu beharko bailitzatekeen epe ertaineko eta luzeko estrategia batekin eta bestelako baliabide eta metodologiek (haren barne aipatu beharko lirateke, besteak beste, *ulerrizketa* eta *uler-saioa* metodologiak).

Eta epe ertaineko eta luzeko estrategiak aipatzen ditugula, gogora ekarri beharko genuke zer garrantzia duen halakoetan trebezia tartekatzeak esperientzia aldiak eta atsedean aldiak. Yin eta Yang jokoan bezala, osagarri diren aurkako alderdiak arretaz begiratu behar dira, eta bakoitzari bere tarte, toki eta zeregina aitortu. Etenik gabeko esperientziak, batez ere oso denbora luzean egiten denean, ito egiten du jendea, indarrak ahitzen ditu, eta gogogabetzen ditu bihotzak. Hala berean, esperientziarik gabeko atsedean tarte luzeegiek tonu eta erritmoari eustea galarazten dute, eta gerturazten nagitasuna eta apatia. Ez zaigu erraza dakiguneraino bi aldiren arteko neurri orekatua ematea, baina orain arte probatu dugun neurriez (2 hilabeteko saioak) emaitza txarrak eman dituenik ezin esan.

Kezka hauetan oinarriturik, aldaera bat gehitu diogu *Eusle metodologiari* hipotesi gisa, eta haren emankortasuna probatzeari ekin diogu 2015-16 ikerraldian. “Esperientzia tartekatua” izenez ezagutzen ditugu aldera horiek, eta laburrean esanda, beren ezaugarria da atsedean aldiak eta esperientzia aldiak era sistematikoan tartekatzea. Emaitzak eta hausnarketa emaitzen atalean aztertuko ditugu.

4.



IKERKETARAKO METODOLOGIA

Ikerketa diseinu orokorrak hiru erabilera neurketa egitea hartzen zuen gogoan. Lehenengo neurketa esperientzia hasi baino lehen egin izan dugu (datu hau normalean egitasmoa onartzeko bilera bertan jasotzen genuen, baldin taldeak baietz esaten bazion esperientzia abiatzeari). Bigarren neurketa esperientzia bukatzean egin izan dugu. Eta azkenik, hirugarrena, esperientzia bukatu eta handik hiru hilera. Bigarren neurketak zuzenean neurtzen zuen esperientziaren ondorioz izandako aldaketak. Hirugarrenak ordea esperientzia bukatu eta denbora tarte esanguratsua pasa ondoren izandako galerak eta irabazi finkatuak.

Hiru neurketetan “Mintzagrama” izeneko galdetegia erabili dugu. Funtsean, lankide bakoitzarekin aurreko egunetan izaniko hizkuntza jokaeraz galdetzen zitzaien. Bosteko eskala batez baliaturik, kideek erantzun behar zuten bi multzotan: norberak kide bakoitzari nola hitz egin dion, eta bestetik, besteek nola egin dioten berari.

MINTZAGRAMA

“Azken bost egunetan, zenbat denbora eman duzu euskaraz hitz egiten **lankide bakoitzarekin?** Eta **beraiek zurekin?**”

Denbora horiek kontuan hartuta idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzari gehien hurbiltzen den zenbakia. Nola izan da harremana?

Erabili ondoko eskala hau:

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

<i>Lankideen izenak</i>	<i>Nik berari</i>	<i>Berak niri</i>
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		
11.		
12.		

Oharra: taldeko lankide guztien izenak agertu behar dute zerrendan

Bigarren mintzagramarekin batera, kide bakoitzarekin zuten harremanaren maiztasunaz egiten genien galde. Hau ere bosteko eskala batez baliatuta⁹.

Lehenengo mintzagrama kasu gehienetan modu presentzialean bete dira, esperientzia onartzeko egindako biltzarrean bertan, taldeak baiezko erabakia hartu ondoren. Bigarren eta hirugarren neurketen kasuan posta bidez egin dugu jasoketa. Lantokiko koordinatzaileak galdetegia kideei postaz bidali eta emaitzak bildu ondoren, ikerketa taldeari igorri izan dizkio datuak.

Beraz, erabilerari dagozkion datu guztiak datu aitortuak dira, eta halakoetan beti alde baterako joera batzuk ager daitezkeen arren, suposa dezakegu neurketa guztietan era antzekoan agertuko direla. Beraz, joera horiek neurketa guztietan konstante gisa hartuz gero, neurketarik neurketa dauden aldaketak datu sendo eta fidagarritzat hartuko genuke. Egia esan, hori da inporta zaiguna; ez hainbeste zenbatekoa da erabilera hori, baizik aldatu ote den, zein norabidetan eta zenbat.

Mintzagramaz gain, eusleen hizkuntza jokaeraren berri jakitea izan dugu, astero jarraipen fitxaren bidez jaso dugun informazioari esker. Fitxa hartan, besteak beste, kide guztiak iritzia eman behar zuten aste horretan eusleek hizkuntza araua nola betetzen ari ziren. Hiru aukera zeuden erantzun gisa:

- 1) Bai, betetzen ari da.
- 2) Erdizka betetzen ari da.
- 3) Ez, ez da betetzen ari.

⁹ Zehazki honako eskala hau: 1) oso txikia, 2) txikia, 3) tartekoa, 4) nahikoa, 5) handia.

Ikerketaren muina guztiz sinplea da, eta une ezberdinetan hizkuntza jokaeraren “argazki” bat egitera mugatzen da. Uko egin zitzaion kideen hizkuntza gaitasunari buruzko datuak zein jarrerari buruzkoak jasotzeari, bai eta lanetik kanpoko harreman sareari edo norbere hizkuntza-biografiari buruzko datuak biltzeari ere, eta hizkuntza jokaerari buruzko informazioa besterik ez da jaso. Era berean, ez da bilerarik egin ez azterketarik, ez hausnarketa saiorik, ez itaunketarik, esperientzian aritzeko zuten motibazioaz, ez uzteko zuten arrazoiez (utzi zutenen kasuan. Hitz gutxitan, ez dugu ikerketa kualitatiborik ere egin inongo momentutan. Eta hau guztia egin ez bada, ez da informazio horrek interesik ez duelako, ez horixe, baina berariaz eta luze pentsatutako erabaki batek eraginda izan da. Izan ere, gure motibazio estrategiaren funtsezko bi puntu ziren sinpletasuna eta ziurtasuna. Sinpletasunaren izenean, egin dugu baztertzea zegoen informazio guztia baztertu eta ezinbestean lortu beharrekoa baizik ez eskuratu. Ziurtasuna eta konfiantza eragin nahian, uko egin genion jendearen uste intimoetan arakatzeari, eta bai taldeen barne dinamika sentiberean miatzeri ere. Uste genuen horrela jokatura taldeek askatasun handiagoa izan zezaketela esperientziarekiko erabakiak era libre eta zintzoan hartzeko. Honek eraman gaitu ezinbestean “kutxa beltzeko” ikerketa molde batera¹⁰, non datuak ditugun ageriko jokaera batez abiapuntuko egoeran, bukaerakoan eta handik hiru hilekoan, bai eta esperientzia ondoren batetik bestera izan diren aldaketak behatzen ditugun ere, baina aldi berean ezin dugu jakin aldaketa horien atzean zer motibo, uste, jarrera, bizipen edo asmorik egon diren.

Informazio guztia bi formatutan prozesatu dugu, banakako datuak batetik, eta binakako datuak bestetik. Banakako datuen bidez kide bakoitzaren hizkuntza erabileraren bilakaera ilustra dezakegu. Datu hori da banako bakoitzaren harreman guztien batez bestekoa. Esaterako, A kidearen hizkuntza jokaeraren batez bestekoa kalkulatzeko kontu egin diogu gainerako kide guztiek A kideari buruz emandako iritziari, eta ez A kideak bere buruari buruz emandakoari. Zehazki, gainerako kide guztiek mintzagraman A kidearen lerroan eta “berak niri” atalean jarritako datuak hartu ditugu. Horrela jokatura, norbere buruari buruzko iritziek eman dezaketean makurtzea zertxobait leundu nahi izan dugu.

Binakako datuek bikoteak hartzen dituzte unitate gisa. Datu horiek baliatuko ditugu biko harremanen erradiografia egiteko, bai eta tipologia ezberdineko bikoteek esperientzian zehar ezagutu duten hizkuntza erabileraren bilakaera antzemateko ere. Bikote baten hizkuntza jokaera zehazteko lau datu hartu eta haien batez bestekoa egin da. Esaterako, A eta B kideek osatutako bikotearen hizkuntza jokaera kalkulatzeko honako lau datu hauek erabili ditugu:

- A kidearen ustez, berak B kidearekin zein hizkuntza jokaera duen.
- A kidearen ustez, B kideak berarekin zein hizkuntza jokaera duen.
- B kidearen ustez, berak A kidearekin zein hizkuntza jokaera duen.
- B kidearen ustez, A kideak berarekin zein hizkuntza jokaera duen.

10 Psikologia ikerbidean konduktismoak zabalduko terminoa da “kutxa beltza”. Kanpotik sistema batera barneratzen diren estimuluek eta sistemak berak kanpora erakusten dituen erantzunak, dira modu zehatzean beha daitezkeen bakarrak. Ordea, zer gertatu den sistemaren barruan ezin da zuzenean eta modu zehatz eta objektiboan behatu. Horregatik, konduktismoa jokaeren behaketan oinarritu izan da, eta ez asmoen, ideien, pentsamenduen edo sentimenduen interpretazioan.

Honako hauek dira erabili ditugun oinarriko aldagaiak eta bakoitzaren esanahia:

- **Lantokia:** kide edo bikote bakoitzak esperientzia zein lantokitan garatu duen.
- **Erabilera 1:** esperientzia hasi baino lehenagoko hizkuntza jokaera (banaka edo binaka emanda).
- **Erabilera 2:** esperientzia bukatutakoan izandako hizkuntza jokaera (banaka edo binaka emanda).
- **Erabilera 3:** esperientzia bukatu eta handik hiru hilera izandako hizkuntza jokaera (banaka edo binaka emanda).
- **Euslea:** esperientzian zehar, hilabete batez (edo bi hilabetez) eusle gisa aritu den edo ez.
- **Betetze maila:** eusleek hizkuntza araua nola bete duten.
- **Harremanaren maiztasuna:** kide bakoitzak gainerako kideekin izandako harremanaren maiztasuna esperientziaren azken astean.

Aldagai hauekin egin diren eragiketa nagusiak honako hauek izan dira:

- **Aldea 1:** Erabilera 2 aldagaia ken Erabilera 1 aldagaia. Datu honek aditzera ematen du zenbateko aurrerapena (edo aurrerapen eza) egin den lehenengo neurketatik bigarren neurketara, eta hortaz, zuzenean neuritzen du esperientzia tartean emandako aldaketa.
- **Aldea 2:** Erabilera 3 aldagaia ken Erabilera 2 aldagaia. Datu honek aditzera ematen du zenbateko aldaketa (aurrerapena edo atzerapena) gertatu den esperientziaren garaia bukatu eta hiru hilabete pasatu direnean. Honek, nolabait, neurtzen du atsedean eta pausatze fasean zenbat gelditu den finkatuta eta zenbat desagertu den esperientziaren garaiarekin alderatuta.
- **Aldea 3:** Erabilera 3 aldagaia ken Erabilera 1 aldagaia. Datu honek aditzera ematen du zenbat aldaketa eman den hizkuntza jokaeran ziklo osoa bukatutakoan, hau da esperientziaren garaia eta atsedean garaia osatutakoan, edo nahi bada, astintze aldia eta pausatze aldia amaitutakoan.
- **Hobetzeko tartea:** 100 ken hizkuntza jokaera. Zenbateko aldea dagoen unean uneko hizkuntza jokaeraren indizetik %100 goreneko puntuazioraino.

- **Hobe zitekeenarekiko aurrerapena:** eragiketa honek baloratzen du 0-100 eskala batean zenbatekoa izan den hizkuntza jokaeran emandako aldaketa, hobetzeko tartea erreferentzia gisa hartuta.

Azkenik, hainbat tipologia eraiki ditugu aurreko datuetan oinarrituta eta bikoteen osaera eta bilakaera bereziak kontuak hartuta. Hona hemen hiru tipologia nagusiak:

1) “Beti edo ia beti euskaraz” kategoria “euskarazko ohitura” kontzeptuaren pareko hartuta honako bikoteen sailkapen hau egin dugu:

- **Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian jarraitu.
- **Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera₃n) “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon, eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon, eta amaitu eta hiru hilabetera berriz ere (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu ez:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.




2) Eusleen presentziaren araberako sailkapena:

- ***E+E*** : bi kideak eusle izan dira
- ***E+A***: kide bat eusle izan da eta bestea ez (eusle izan ez den lagunari kide “arrunta” izendapena eman diogu: A)
- ***A+A***: ez bata ez bestea ez dira eusle izan, hots: biak kide “arruntak” izan dira

3) Hasieratik norbaitekin beti euskaraz egitea zer den ezagutu ala ez aldagaiaren araberako sailkapena:

- ***5+5*** : bi kideek badute hasieran bertan lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta (euskarazko ohitura “beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza kategoriarekin parekatu dugu lanean zehar. Hizkuntza kategoria horri 5 zenbakia dagokio guk erabili dugun eskalan. Hortik datorkio, beraz, multzo honi 5 zenbakiarekin identifikatzea)
- ***5+0***: kide batek badu lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta hasieran bertan, eta besteak, ordea, ez du inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.
- ***0+0***: ez kide batek ez besteak ez dute inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.

5.



EMAITZEN EZTABAIDA

Eusle metodologian oinarrituriko lehen esperientzien gainean 2015ean argitaraturiko lehen analisian oinarrituz¹¹, hautu batzuk egin dira hemen emaitzak aztertzeko. Hautaturiko taula guztiak kontsulta litezke eranskinen atalean, eta horietariko batzuk, nabarmendu ditugun emaitzekin loturikoak emaitzen atal honetako testura ere ekarri ditugu.¹²

5.1.

Lantokiak

Esperientzietan ari izan diren taldeen tamainari erreparatuz gero, hiru multzo edo kategoria ikusten ditugu (ikus A taula). Batetik, tamaina txikia duten hiru lantoki daude (7 eta 9 kideen artekoa). Bestetik, tamaina ertaina duten beste zazpi lantoki daude (10 eta 15 kideen artekoa). Eta azkenik, tamaina handia duten hiru lantoki (16 eta 20 kideen artekoa)¹³.

¹¹ Ikus *opus cit.* Jauregi eta Suberbiola (2015)

¹² Atal honetako testura ekarri diren taulak hizki bidez ordenatu dira, baina eranskinetan ere ageri dira, bakoitza bere zenbakiarekin. Zehazki, hauek dira testura ekarri diren taulek eranskinean dituzten zenbakiak: A (1), B (10.2), C (2), D (15.1), E (15.2), F (4), G (12.1), H (6), I (5), J (8.2) eta K (8.3).

¹³ A taulan ageri den gune bakoitzeko kide kopurua analisirako erabili dena da. Hiru unetan jaso dira azterketa honetan lankideen hizkuntza erabilerari buruzko datuak, eta analisisian sartu diren lankideak hiru uneetako datuak zituzten kideenak dira. Badira kide batzuk, gune horietan lan egin eta esperientziaren zatiren batean parte hartu arren, hiru uneetako informazio osoa ez zutenak. Horiek azterketatik kanpo utzi dira, eta guneetako lankide kopuru hauetan ere ez dira ageri.

A taula: guneko bakoitzeko lankide kopurua

<i>Lantokiak</i>	<i>Kide kopurua</i>	<i>%</i>
D gunea	7	4,2
B gunea	8	4,8
F gunea	9	5,4
I gunea	11	6,6
K gunea	11	6,6
A gunea	12	7,2
G gunea	13	7,8
H gunea	13	7,8
C gunea	14	8,4
E gunea	15	9,0
L gunea	16	9,6
M gunea	17	10,2
J gunea	20	12,0
Guztira	166	100

Kideen arteko harreman-maiztasunari dagokionez (ikus B taula), hiru taldetan, batez beste, “tar-teko” maiztasuna nagusitzen da. Zortzi taldetan “nahiko” maiztasuna ageri da. Eta talde bakar batean maiztasun handiko harremana. Kontaketa honetatik kanpo gelditu zaigu talde bat, datu hau ezin izan genuelako jaso. Edonola ere, harreman natural dezentekoa erakusten dute datu hauek.

B taula: lankideen arteko harremanaren maiztasuna, guneka (ehunekotan)

<i>Lantokiak</i>	<i>Oso txikia</i>	<i>Txikia</i>	<i>Tartekoa</i>	<i>Nahikoa</i>	<i>Handia</i>	<i>Guztira</i>
A gunea	0	8,5	35,6	32,2	23,7	100
B gunea	0	0	10,7	25,0	64,3	100
C gunea	1,1	6,7	23,3	34,4	34,4	100
D gunea	0	9,5	14,3	19,0	57,1	100
E gunea	2,9	14,3	30,5	32,4	20,0	100
F gunea	0	5,6	30,6	38,9	25,0	100
G gunea	6,4	28,2	28,2	16,7	20,5	100
H gunea	1,3	14,1	33,3	25,6	25,6	100
I gunea	7,3	21,8	21,8	21,8	27,3	100
J gunea¹⁴	?	?	?	?	?	?
K gunea	0	14,5	9,1	18,2	58,2	100
L gunea	0	28,4	52,3	19,3	0	100
M gunea	0,8	3,3	26,2	40,2	29,5	100
Guztira	1,8	14,1	29,3	28,0	26,8	100

¹⁴ Ezin izan genuen J gunean informazio hau jaso. Guztira 190 bikote dira horiek guztiak.

Esperientzia abiatzerakoan, gune bakoitzeko kide guztien euskararen erabileraren batez bestekoa kontuan hartuta, halako banaketa bat egin genezake (hiru mailatan): bi guneetan, lankideen batez besteko euskarazko erabilera hori %12,6 eta %37,5 artekoa zen (G eta L guneetan, zehazki). Baziren beste lau gune, non batez besteko erabilera hori %37,6 eta %62,5 artekoa zen (B, D, F eta H guneak). Eta baziren beste zazpi gune abiatzeko unean lankideen batez besteko euskarazko erabilera %62,6 eta %87,5 artean zutenak (zehazki, A, C, E, I, J, K eta M guneak) (ikus xehetasun guztiak C taulan)¹⁵. Hiru multzo hauek, beraz, euskararen erabilerari dagokionez, beheko, tarteko eta goiko egoeretatik abiatu ziren, hurrenez hurren.

C taula: gune bakoitzeko euskararen erabileraren bilakaera, neurtutako hiru uneetan

<i>Lantokiak</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
A gunea	74,1	85,5	87,9	11,4	2,3	13,8
B gunea	45,8	67	58,2	21,2	-8,8	12,4
C gunea	79,8	89,6	86,5	9,7	-3	6,7
D gunea	44,6	85,2	63,7	40,5	-21,5	19,1
E gunea	71,4	83	80,3	11,6	-2,8	8,8
F gunea	49,4	68,8	62,4	19,4	-6,3	13,1
G gunea	33	61,8	43,8	28,8	-18	10,8
H gunea	59,3	71,2	69,2	11,9	-2	9,9
I gunea	84,8	95	91,1	10,2	-3,9	6,4
J gunea	65,3	77,2	78,5	11,9	1,3	13,2
K gunea	78,2	83,9	80,2	5,7	-3,6	2
L gunea	22,9	37,5	25,3	14,6	-12,2	2,5
M gunea	76,4	85,3	84,2	8,8	-1	7,8
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,3	-4,7	10,6

5.2.


Joera nagusia

Aurrena, lagin osoari begiratuko diogu, aldagai zehatzetan arreta jarri gabe. Hala, antzemango dugu zein den hizkuntza jokaeraren bilakaera nagusia.

¹⁵ C taulan datu gordinak ageri dira, baina hemen eragiketa batzuk egin ditugu datu horien gainean. Batetik datuak txikitik handira ordenatu, kategorizatu eta batezbestekoa egin dugu.

C taulako datuak aztertzen hasita, ikusten dugu bi hilabeteko esperientzia tartean 15,3 puntutan igo dela euskararen erabilera, zehazki %60,8tik %76,1era. Esperientzia bukatu eta handik hiru hilabetera 4,7 puntu jaitsi da euskararen erabilera, zehazki %76,1etik %71,4ra. Hala ere, ziklo osoa kontuan hartzen dugunean, hau da, esperientzia garaia eta atsedeen garaia, biak bost hilabeteko epealdian¹⁶, orduan 10,6 puntutan igo da euskararen erabilera, zehazki %60,8tik %71,4ra. Hau guztia hurrengo grafikoan ere ikus daiteke:

1. grafikoa: Hizkuntza erabileraren bilakaera



D taulak ere hizkuntza erabileraren bilakaeraren berri ematen digu, baina beste ikuspegi batetik oraingoan. Hala, “euskaraz jardutea ohiko jokaera izatea” izan genezakeen goieneko helburua dela emango bagenu¹⁷, orduan bikoteen sailkapen interesgarri bat egin genezake, berezita helburua jada lortua zuten, esperientzian zehar lortu duten, edo erdizka lortu duten. Bada, guretzat, “helburu lortua zuten bikoteak” dira esperientzia aurreko neurketan jada *euskaraz beti edo ia beti* ziharduten bikoteak. Aurreneko neurketan ez, baina ondorengoetan *euskaraz beti edo ia beti* egitera pasa diren bikoteak izango dira guretzat “helburua lortu dutenak”. Eta *euskaraz beti edo ia beti* egitera ez aurrenekoan, eta ez hurrengoetan ere, iritsi ez diren bikoteak, guretzat izango dira “helburua lortu ez dutenak”, edo nahi bada “helburua erdizka baino lortu ez dutenak”.

¹⁶ Eta zazpi hilabetekoa, esperientzia tartekatuen kasuan.

¹⁷ Helburu hau guk orain, a posteriori, esplizitatuta da eta gure irakurketarako sortua da bereziki. Baina, berori ez da inoiz modu esplizituan planteatu esperientzian zehar, eta ezin dugu jakin esperientzia-kideek ere era inplizitu edo esplizituan helburutzat eduki duten. Are gehiago, esperientzia batzuen kasuan, lankideen euskaraz hitz egiteko ohitura, erraztasuna eta abar kontuan izanik, baliteke erabat lortu ezinezkoa izatea hori esperientziak irauten duen bi hilabeteetan.

D taula: bikoteen sailkapena, “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	415	40,4
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	17	1,7
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	117	11,4
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	64	6,2
Euskarazko ohitura berria lortu ez	413	40,3
Guztira	1026	100

Irizpide honen arabera, bikote guztien %40,4k bazuen euskaraz jarduteko ohitura hasieratik bertatik, eta esperientzia osoan zehar ohitura hori bere horretan mantendu da. Aztertutako bikoteen kopuru txiki batek bakarrik (%1,7k) egin du euskararen erabileran zertxobait atzera: bikote horiek hasieran jada *euskara beti edo ia beti* egiten zuten, eta aldiz ziklo osoaren amaieran beren arteko erabilerak zertxobait behera egin du maila goren horretatik.

D taulako datuekin jarraituz, bada multzo handi bat (bikote guztien %40,3 zehazki) esperientzian ziklo osoan zehar ez dena iritsi haien artean *euskaraz beti edo ia beti* egitera (ez esperientzian zehar, eta ez atsedean garaian ere). Bikote hauek gehienek, hala eta guztiz ere, aurrerapen aipagarriak egin dituzte euskararen erabileran, baina aurrerapen horiek ez dira iritsi eguneroko euskarazko erabileran egonkortzera. Gure ustez, jokoera iraunkorrak, eta hortaz ohiturazkoak, jokoera argi eta sendo bat (gure kasuan “euskaraz beti edo ia beti” egitea) denbora zehar behin eta berriz jokatzearen ondorio zuzenak dira. Ordea, bikote hauek ez dira esperientzian zehar euskarazko hizkuntza jokoera argi eta sendo hori eskuratzera iritsi (hots, “beti edo ia beti euskaraz” jokatzea), eta, ondorioz, ezin izan dute jokoera hori behin eta berriz erakutsi, barneratu eta automatiko bihurtu. Horregatik diogu, aurrerapenak egin dituzten arren, aurrerapen horiek ez direla iritsi egonkortasunaren mailara euskararen jokoeratik begiratuta.

Azkenik, emaitzarik interesgarrienak bikote guztien %11,4k erakutsi dituzte. Hauek lortu dute esperientzian zehar, eta esperientziari esker, *euskaraz beti edo ia beti* jokatzea beren artean, eta etengabeko jardura horrek sustrai egin du beren jokoeran. Ondorioz, esperientzia bukatu eta hiru hilera ere euren arteko harremanak jarraitzen zuen *beti edo ia beti euskaraz* izaten. Bikote hauetaz esan dezakegu euskaraz aritzeko ohitura bereganatu dutela (D taulako sailkapenean, “euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu” dute). Era berean, interesgarria da bikoteen %6,2ren hizkuntza erabileraren bilakaera. Hauek lortu dute esperientzian zehar *beti edo ia beti euskaraz* egitera iristea, baina ez euskarazko joera hori egonkortzea atsedean garaia etorritakoan (eta beraz zikloaren amaieran beren euskarazko erabilera ez zegoen maila goren horretan; D taulako sailkapenean, “euskarazko ohitura berria lortu eta galdu”).

5.3.

Euskarazko hizkuntza ohitura eskuragai zutenen hizkuntza erabileraren bilakaera

Aurreko ataltxoan ikusi izan dugun bezala, baziren esperientzia hasi aurretik ere jada euskaraz jokatzeko ohitura zuten bikote ugari, bikote guztien %42,1 hain zuzen ere¹⁸. Ondorioz, aztertutako bikote guztien gainerako %57,9a zen euskarazko ohitura eskuratzeko edo/eta finkatzeko aukera zeukan bikoteen proportzioa¹⁹. Esperientziaren hasieran euskarazko ohiturarik ez zuten bikote horietan jarriko dugu arreta jarraian. Esperientzien ziklo osoko datuak kontuan izanik (Erabilera 1, 2 eta 3), bikote hauek hiru multzotan banatu ditugu, eta ondoren zehazten dira multzo bakoitza osatzeko erabili diren irizpide operatiboak:


- **Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon, eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon, eta amaitu eta hiru hilabetera berriz ere (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu ez:** Hasieran (erabilera₁ean) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera₂n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera₃n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.

Multzoak irizpide horien arabera osatuta, kalkulatu dugu multzo bakoitzeko bikote guztien euskarazko batez besteko erabilera zenbatekoa izan den azterketaren hiru uneetan. Horrela, hiru bikote multzo edo mota hauen hizkuntza erabileraren bilakaera erakusten da beheko grafikoan.

¹⁸ Kopurutan, aztertutako 1.026 bikoteetatik 432.

¹⁹ Kopurutan, aztertutako 1.026etatik, gainerako guztiak, hau da, 594 bikote.

2. grafikoa: Euskarazko hizkuntza ohitura eskuragai zutenen hizkuntza erabileraren bilakaera



Ondorio interesgarriak atera daitezke aurreko 2. grafiko honetatik. Aurrena, ikusten da, hizkuntza ohitura eskuragai zuten bikoteen hiru multzo horiek, hizkuntza erabileraren bilakaera ezberdinak ezezik, izan dituztela ere abiapuntu ezberdinak. Euskarazko ohitura “lortu” ez dutenek hizkuntza egoerarik baxuenetik abiatu dira: %29,1 batez beste Erabilera I unean (puntuazio hori, bikoteen batez besteko euskarazko erabilerak (%) eta azterketan erabili ditugun bost kategoriak lotuz, “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” kategoriaren tartean kokatzen da²⁰). Euskarazko ohitura “lortu eta galdu” dutenek %54,7 puntuko erabileratik abiatu dira (abiapuntuko batez besteko erabilera hori, gure sailkapenean “bi hizkuntzetan berdin” kategoriari dagokio). Horrela, bigarren multzo honetako bikoteek, batez beste, *beti edo ia beti euskaraz* egiteko jauzi handi samarra egin behar izan dute, eta –emaitzen irakurketa eginaz– pentsa genezake bi hilabeteak ez dira aski izan ahalegin hori finkatzeko, barneratzeko, eta ohiko bihurtzeko. Hirugarren multzoa, euskarazko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikoteena, abiatu da euskarazko erabilerarik altuenetik (batez beste, %67,7tik. Bete-betean “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian kokatzen da indize hori). Multzo honetako bikoteek, koska –edo kategoria– bakar bat gora besterik ez dute egin behar izan “beti edo ia beti” euskaraz egitera iristeko. Eta –emaitzen irakurketa eginaz berriz ere– bi hilabete aski izan dute euskarazko hizkuntza ohitura hori finkatzeko.

20 Kategorizazioa egiteko, bai hemen eta bai ikerketa guztian zehar ere honako korrespondentzia hauek erabili ditugu:


%0tik %12,5era	Beti edo ia beti gaztelaniaz
%12,6tik %37,5era	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
%37,6tik %62,5era	Bietan berdin
%62,6tik %87,5era	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
%87,6tik %100era	Beti edo ia beti euskaraz

5.4.

Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak

Aurrena, “euskarazko ohitura lortu eta finkatu” duen taldeari begirada zehatza zuzentzen badiegu, ikus dezakegu bikote horiek zein hizkuntza kategoriatik abiatu diren. Hizkuntza kategoriaz guztietako alerik badago ere, nabarmen nagusitzen dira esperientzia abiatutakoan “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” hizkuntza kategorian zeudenak, multzo honetako bikote guztien %80 hain zuzen ere. Beraz, hauek “euskaraz beti edo ia beti” kategoriara iristeko koska bat gora egin behar izan dute eskalan²¹. Gainerako %20k jauzi handiagoak egin ditu: bi, hiru eta -kasuren batean- lau koska ere egin ditu gora “euskaraz beti edo ia beti” kategoriara iristeko.


3. grafikoa: Euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteen abiapuntuko egoera



Aztertzen badugu eusleen presentzia bikote horietan, oso datu interesgarriak eskuratzen ditugu. Lehendabizi, ez dirudi beharrezko izan denik bi kideak eusle aktibo izatea bikoteak euskarazko jokaera lortu eta finkatzeko. Halakoak %4 baino ez baitira izan multzo honetako bikote guztietatik. Antza denez, egoerarik zabalduena (bikoteen %66) kide bat eusle izatea eta bestea ez izatea izan da. Kasu hauetan guztietan baieztatzen da euslearen jokaera “urratzaileak” indarra izan duela solaskidea euskarara erakartzeko, nolabait solaskidearen jokaera “egokitzailea” zuzen aktibatuta euskararen aldera. Baina, aurrekoa baino are harrigarriagoa eta aipagarriagoa da gainerako %30arekin gertatutakoa. Izan ere, euskarazko jokaera finkatu badute ere, bikote horietan kideetako bat ere ez baita eusle izan esperientzian zehar. Horrek adieraziko luke eusleen jokaeraren eraginak gaintzen duela aurrez aurreko harremana, eta nolabait harreman eremu osoa jotzen duela. Beraz, esan genezake, euslearen jokaera urratzaileak eremu batean sorrarazten duen “lurririkara” eta astintzea ez dela mugatzen bere presentzia fisikora, eta baduela indarra gainerako harremanetan zehar zabaltzeko. Eremu osoan halako “kutsatze” orokor bat ematen da.

21 Gogoratu erabileraren eskalak bost kategoriaz dituela: 1. Betri edo ia betri gaztelaniaz; 2. Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago; 3. Bietan berdin; 4. Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago; 5. Betri edo ia betri euskaraz

4. grafikoa: Eusleen presentzia, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteetan




Eusleen eraginarekiko errezeptibitatea edo harmena ez da intentsitate berarekin eman pertsona guztiengan. Pertsona bakoitzaren aurreko hizkuntza esperientzia harmen hori azaltzeko aldagai garrantzitsua izan daiteke. “Pertsonen aurreko hizkuntza esperientzia” aipatzerakoan oso egoera zehatza dugu gogoan testuinguru honetan. Izan ere, gure unibertsoan bazeuden kide batzuk hainbatekin –guneko kide guztiak ez izan arren– “beti edo ia beti euskaraz” jokatzeko zutenak, eta hortaz, haien artean ez zen guztiz berria eta arrotza norbaitekin beti euskaraz hitz egitea. Kide horiek bazuten norbaitekin euskaraz jokatzeko ohitura. Bazekiten larrutik zer den euskaraz hutsez norbaitekin jokatzeko. Bazuten eskarmentua horri zegokionez. Aitzitik, bazeuden beste kide batzuk halako hizkuntza esperientziarik aurretik izan ez dutenak, ez behintzat lantokiaren eremuan²². Haien aipaturiko harreman guztietan ez zegoen esperientzia abiatzerakoan pertsona bakar bat ere, zeinarekin “beti edo ia beti euskaraz” egiten zuten. Beraz, haientzat guztiz berri eta arrotza zen norbaitekin hala jokatzeko, hots, beti edo ia beti euskaraz jardutea.

Datuei erreparatuta, euskarazko ohitura “lortu eta finkatu” duten bikote gehienetan (%68) bi kideek bazuten aurretik halako hizkuntza esperientzia (hots, norbaitekin “beti edo ia beti euskaraz” hitz egiteko). Gainerako bikoteetan (%32) bi kideak ez baziren, bat bai behintzat bazen jakitun zer den norbaitekin beti edo ia beti euskaraz aritzea. Haietako batek bazuen halako eskarmentua, ez ordea besteak. Azkenik, ez da kasurik eman, eta hau ere oso datu adierazgarria da gure aztergaiaren ikuspegitik, non bikote batek erdarazko hizkuntza ohitura irauli eta euskarazkoa lortu eta finkatu duen, nahiz eta bi kideek aurretik jakin ez zer den norbaitekin euskaraz beti edo ia beti jokatzeko.

²² Ez behintzat inguruko lankideekin, azterketako “gunea” osatu dutenekin, horiek baitira guk eskura ditugun datu bakarrak. Ez dakigu, ordea, ikerketa eremutik kanpo norbaitekin duten euskaraz egiteko ohitura. Bistan da halako azterketa batean informazio interesgarria litzatekeela hori, baina sinpletasuna lehenetsiz, ez dugu jasotzen informazio hori, ez interesgarriak izan zitezkeen beste hamaika ere.

5. grafikoa: Ea euskarazko ohiturarik baduten norbaitekin, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteetan



Badirudi, esperientzia hauen denbora eta efektu mugatua gogoan hartuta, denbora tarte labur honetan “ohitura lortu eta finkatu” ahal izateko, gutxienez bietako batek behar zuela halako harremana esperientzia hasi aurretik eduki. Biek halako aurreko hizkuntza esperientzia ezagutuz gero, orduan are errazago.


5.5.

Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteak

Bestelakoa da abiapuntuko hizkuntza egoera multzo honetan, aurreko multzoarekin alderatuz gero. Joera argiro aldatzen da. Aurreko multzoan “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategoriakoak nagusitzen baziren (gogoratu, %80 ziren), oraingo honetan %45 baino ez dira, eta joera argi egiten du eskalan euskarazko ohiturara iristeko bi, hiru edo lau “koskako jauzia” egin behar luketenen aldera (bikote guztien %55, zehazki). Ikus datu horiek, beherago, 6. grafikoan.


Beraz, bikote hauetako erdiak baino gehiagok aldaketa handia egin du “euskaraz beti edo ia beti” kategoriara iristeko, beren abiapuntuko ohiko egoerarekin alderatzen dugunean. Aldaketa handi samarra izanik, oso uste izatekoa da bikote hauei bi hilabeteko tarte eskasa gelditu zaiela hizkuntza jokaera berria barnertzeko, pausatzeko eta finkatzeko. Pentsatzekoa da, era berean, zenbat eta harroaldia handiagoa izan, gero eta tarte gehiago behar izatea hura sendotzeko eta arrunt bilakatzeko. Honek esplikatu lezake batetik, esperientzian zehar eskuratutakoari ez eustea atsedean garaia etorrita. Eta hala eta guztiz ere, atzera zertxobait egin arren, esperientzia ondoren abiapuntuko egoeran baino koska altuago batean pausatu dira (gogoratu, 2. grafikoan ikus daitezkeen moduan, multzo honetako bikoteak pasa direla, batez beste, hasieran euskarazko %54,7ko erabileratik izatetik atsedean aldiaren amaieran %69,5 izatera).

6. grafikoa: Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteen abiapuntuko egoera




Ematen du bikote hauen aldaketa handian zerikusirik izan duela eusleen presentzia nabarmenagoak. Aurreko multzoan baino multzo honetan ia 20 puntu altuagoa da eusleen presentzia. Datuen irakurketa eginaz, eusleen jarduerak aktibazio handia ekarri du bikote hauetan, baina pausatze fasea ezin izan da neurri bereko patxadaz gauzatu.

7. grafikoa: Eusleen presentzia, euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteetan



Eta azkenik, 13 puntu igo da multzo honetan, aurreko multzoarekin alderatuta, euskarazko ohiturarik inorekin ez duten kideen presentzia bikoteetan (ikus datuak beherago 8. grafikoa). Beraz, horrek areagotzen du hizkuntza jokaera berriaren berritasuna kide askorentzat, eta ondorioz handitu egiten du aldaketaren sakontasuna eta zaildu denbora tarte mugatuan egonkortzera iristeko aukera.

8. grafikoa: Ea euskarazko ohiturarik baduten norbaitekin, euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteetan




5.6.


Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteak

Multzo honetan nabarmentzen dira esperientzia abiatutakoan gaztelaniaz egiteko joera zuten bikoteak. Kategoriak nabarmenenak dira “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” egiten zutenak (%42) eta “beti edo ia beti gaztelaniaz” (%26). Beraz, hauek ziren “euskaraz beti edo ia beti” kategoriatik urrutien zeudenak.


9. grafikoa: Euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen abiapuntuko egoera



Bestalde, oso-oso nabarmen jaisten da bikote hauetan eusleen presentzia: 43 puntu baxuagoa da “euskarazko ohitura lortu eta galdu” duten multzoko bikoteetan baino, eta 14 puntu baxuagoa, “euskarazko ohitura lortu eta finkatu” duten bikoteetan baino.

10. grafikoa: Eusleen presentzia, euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteetan

Era berean, multzo honetan ahuldu egiten da “euskarazko jokaera” norbaitekin duen kideen presentzia, nabarmen. Aurreneko aldiz ageri da “bietako inork ez du norbaitekin euskarazko ohiturarik” kategoria (%19), eta horrekin batera gizendu egiten da “kide bakar batek du norbaitekin euskarazko ohitura, besteak ez” kategoria (%59).

11. grafikoa: Ea euskarazko ohiturarik baduten norbaitekin, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteetan

Hiru osagai hauek azal dezakete zergatik ez duten bikote hauek “euskaraz beti edo ia beti” kategoria erdietsi. Baina, hala eta guztiz ere, multzo honetako bikoteek ere handitu egin dute abiapuntuko euskarazko erabilera. Beherago E taulan ikus daitekeenez, esperientzia tartean 17,7 puntu hobetu dute euskarazko jarduna, batez beste, multzo honetako bikoteek, eta ziklo osoa kontuan hartuta (esperientziaren garaia eta atsedeen garaia biak batera) 11 puntu egin dute aurrera. Oro har, ohitura lortzera iritsi ez diren hauek ere gainerakoek adina aurreratu dute erabileran, abiapuntu baxuagoa eduki arren.

E taula: “euskarazko ohitura” aldagaiaren araberako hizkuntza erabileraren bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erab.1</i>	<i>Erab.2</i>	<i>Erab.3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	100	99,6	100	-0,4	0,4	0
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	100	89,7	72,1	-10,3	-17,6	-27,9
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	94,2	100	26,5	5,8	32,3
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	100	69,5	45,3	-30,5	14,8
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	46,9	40,1	17,7	-6,7	11,0
Guztira	65,0	77,6	73,5	12,7	-4,1	8,6

5.7.

Eusleak eta ez-eusleak

Banakako azterketara itzuliz, esan genezake kide guztietatik %38 izan dela eusle, eta, gainerako %62 ez dela eusle izan (Ikus F taula).

F taula: eusleen eta ez-eusleen banaketa guneko bakoitzean

<i>Lantokiak</i>	<i>Eusle izan dira</i>	<i>(%)</i>	<i>Ez dira eusle izan</i>	<i>(%)</i>	<i>Guneko langileak</i>	<i>(%)</i>
A gunea	6	50	6	50	12	100
B gunea	4	50	4	50	8	100
C gunea	6	42,9	8	57,1	14	100
D gunea	4	57,1	3	42,9	7	100
E gunea	6	40	9	60	15	100
F gunea	2	22,2	7	77,8	9	100
G gunea	5	38,5	8	61,5	13	100
H gunea	6	46,2	7	53,8	13	100
I gunea	4	36,4	7	63,6	11	100
J gunea	4	20	16	80	20	100
K gunea	4	36,4	7	63,6	11	100
L gunea	6	37,5	10	62,5	16	100
M gunea	6	35,3	11	64,7	17	100
Guztira	63	38	103	62	166	100

Bikoteak kontuan hartzen baditugu, orduan bikote guztien %12,9ak izan ditu bi kideak eusle txandaren batean, %48,2k kide bat izan du eusle, baina ez bestea, eta, azkenik, %38,9ak ez du bietako inor eusle izan (Ikus G taula). Beraz, biko harreman guztien erdira baino gehiagora (%61,1era, zehazki) iritsi da eusleen eragin zuzena, aurrez aurrekoa alegia.

G taula: Bikoteen sailkapena, kideak eusle izan ala ez aldagaiaren arabera²³

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E+E	132	12,9
E+A	495	48,2
A+A	399	38,9
Guztira	1026	100

H taulan ikus daitekeenez, eusleen %49,2k osoki bete du hizkuntza araua (hau da, betetze maila %90-%100 tartean), eusleen %44,4k erdizka bete du zeregina (hau da, betetze-maila %70-%89 tartean), eta, azkenik, eusleen %6,3k ez du zeregina bete (hau da, betetze-maila %0-%69 tartean).

H taula: eusleen hizkuntza arauaren betetze maila²⁴

<i>Lantokiak</i>	<i>Bai</i>	<i>(%)</i>	<i>Erdizka</i>	<i>(%)</i>	<i>Ez</i>	<i>(%)</i>	<i>Guztira</i>	<i>(%)</i>
A gunea	2	33,3	3	50	1	16,7	6	100
B gunea	4	100	0	0	0	0	4	100
C gunea	4	66,7	2	33,3	0	0	6	100
D gunea	2	50	1	25	1	25	4	100
E gunea	1	16,7	5	83,3	0	0	6	100
F gunea	2	100	0	0	0	0	2	100
G gunea	1	20	4	80	0	0	5	100
H gunea	1	16,7	5	83,3	0	0	6	100
I gunea	3	75	0	0	1	25	4	100
J gunea	3	75	1	25	0	0	4	100
K gunea	3	75	1	25	0	0	4	100
L gunea	3	50	2	33,3	1	16,7	6	100
M gunea	2	33,3	4	66,7	0	0	6	100
Guztira	31	49,2	28	44,4	4	6,3	63	100

23 Hona hemen kategoria bakoitzaren azalpena:

E+E : bi kideak eusle izan dira. E hizkiak Eusle izan dela adierazi nahi du

E+A: kide bat eusle izan da eta bestea ez. A hizkiak kide Arrunta izan dela adierazi nahi du

A+A: ez bata ez bestea ez dira eusle izan, hots: biak kide "Arruntak"

24 Betetze maila, "bai", "erdizka" eta "ez" kategoriatan sailkatzeko, honako irizpide hauek erabili izan dira:

Bai: %90-%100. Erdizka: %70-%89. Ez: %0-%69


Hizkuntza erabileraren bilakaerari buruz, bai eusleek bai ez-eusleek oso joera antzekoa erakusten dute. Datuak I taulan ikus daitezke. Esperientzia tartean eusleek egindako aurrerapena 16,7 puntukoa izan bada, ez-eusleena 14,3 puntukoa izan da: oso antzekoa. Era berean, bost hilabeteko ziklo osoa gogoan hartzen dugunean (hau da, esperientziaren garaia eta atsedeen garaia, biak batera), orduan eusleen aurrerapena 9,1 puntukoa da, eta ez-eusleena 11,4koa.

I taula: eusle izan direnen eta izan ez direnen batez besteko erabilera neurketa bakoitzean

Tipologia	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
Ez da eusle izan	55,3	69,7	66,7	14,3	-2,9	11,4
Eusle izan da	69,8	86,5	79,0	16,7	-7,5	9,1
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,2	-4,7	10,5

I taularen laburpena da beheko grafikoa.

12. grafikoa: Eusleen eta ez-eusleen hizkuntza erabileraren bilakaera




Eusleen hizkuntza abiapuntua ez-eusleena baino altuagoa den arren, bilakaera antzekoa dute bietan. Datu hau interesgarria da. Erakusten du hizkuntza jokaera eraldatzeko garaian, eusleen jardura urratzaile eta aktiboa bezain eraginkorra dela ez-eusleen jardura egokitzaila, biak batera abiatzen direnean talde giro edo gizarte testuinguru egoki batean. Eta egoki hitzarekin adierazi nahi dugu, testuinguru bat non hizkuntza jokaera berria eta nolabait urratzailea zilegi egiten den (esaterako, talde erabaki argi baten bidez) eta balizko jokaera eragozleak neutralizatzen diren. Datu honek bete-betean egiaztatzen du hizkuntza jokaerari buruz landu dugun “taldetasunaren printzipioa” edo ikuspegia.

Eusleen batez besteko euskararen erabilera esperientzia hasterako ia %70ekoa zen, 15 bat puntu altuagoa ez-eusleena baino. Ulertzekoa da hori, kontuan hartzen badugu, eusleak hautatzeko garaian taldeari aholkatzen diogula “euskaraz erraztasunez” moldatzen diren lankideak hautatzea, erronka haien zat egingarria izan dadin.


Datu horrekin bat datorren beste datu bat da “norbaitekin euskarazko ohitura” aldagaiak ematen digu. Eusleen kasuan, %88k bazekien esperientziari heldu aurretik ere zer den lankiderekin batekin beti edo ia beti euskaraz egitea. Beraz, haientzat ez zen arrotza norbaitekin denbora betez euskaraz aritzea. Beren baitan ezagutzen zuten zer zen euskarazko ohitura norbaitekin izatea. Orain ezagun zuten jokaera hura harreman guzti-guztietara hedatu behar zuten, taldearen eskariz.

13. grafikoa: Eusle izan eta norbaitekin euskarazko ohitura izan



Ez-eusleen multzoan, aldiz, nabarmen handiagoa zen euskarazko ohitura inorekin ez zuten kideen proportzioa (%30). Aurreko eta ondorengo grafikoak alderatuta (13 eta 14.ak), argi ikusten da alde hori.

14. grafikoa: Eusle ez izan eta norbaitekin euskarazko ohitura izan



5.8

Esperientzia jarraituak eta tartekatutak

Hamahiru esperientzietatik bi izan dira esperientzia tartekatutak eta hamaika izan dira esperientzia jarraituak edo estandarrek.

Gogora dezagun esperientzia jarraituak edo estandarrek izan direla bi hilabete zehar etenik gabe garatu direnak. Bestalde, esperientzia tartekatuetan, esperientzia guztira bi hilabetekoa izan bada ere, bi atsedean aldi tartekatutak izan ditugu esperientzia aldien artean. Zehazki honako diseinu hau prestatu genuen:

- Hilabeteko esperientzia
- Hiru asteko atsedeen aldia
- Bi asteko esperientzia
- Hiru asteko atsedeen aldia
- Bi asteko esperientzia

Ikuskizun genuen, bereziki, ea modu tartekatuak, hau da, “hasi eta gelditu” zikloak kateatuz ziharduena, lor zezakeen hizkuntza aldaketa egonkorrago edo iraunkorrago egitea, eta nolabait modu estandarrean esperientzia ondoren ikusten genuen atzerapena apalagoa egitea ba ote zegoen.

Era horretako bi esperientzia baino ezin izan dugu oraingoz burutu, eta kopuru txiki horiekin seguru asko oso murrizak eta partzialak dira atera ditzakegun ondorioak. Hala ere, lehenengo hurbilpena egingo diogu aldagai honen azterketari.

Bi gune horietan oso desberdina izan da abiapuntuko hizkuntza egoera. Gune batean hasierako euskararen erabilera batez beste %22,9koa bazen, bigarren gunean %78,2koa zen. Beraz, ia bi muturreko hizkuntza egoerak ditugu aurrez aurre. Azterketa honetarako, nahiago izan dugu esperientzia hauetako bakoitza abiapuntu antzekoa zuten beste esperientzia estandarrekin alderatzea, hala eginda informazio zehatzagoa eskuratuko genuelakoan.

J taulan ikusten dugu lehenengo alderaketa L gunearen (esperientzia tartekatua, abiapuntuko erabilera: %22,9) eta G gunearen artean (esperientzia jarraitua, abiapuntuko erabilera: %33). Antza denez, esperientzia jarraituak gehiago astindu ditu hizkuntza jokoerak, esperientzia tartekatuak baino. Esperientzia jarraituan euskararen erabilera 28,8 puntu aurreratu zen bitartean esperientzia tartekatuan 14,6 puntu. Ordea, esperientzia bukatu eta hiru hilera egindako neurketan, esperientzia jarraituak galera handiagoa izan du (18 puntukoa) esperientzia tartekatuak baino (12,2). Hala ere, irabazien eta galeren arteko azken balantzea egiterakoan, esperientzia jarraituak 10,8 puntuko irabazi orokorra du, eta berriz esperientzia tartekatuak 2,5 puntukoa baino ez. Honenbestez, esan daiteke esperientzia tartekatuen bukaerako hizkuntza egoera ia abiapuntuko hizkuntza egoera bera dela.

J taula: L guneko esperientzia tartekatuen alderaketa abiapuntu beretsuko guneekin

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Esperientzia tartekatua						
L gunea	22,9	37,5	25,3	14,6	-12,2	2,5
Esperientzia jarraitua						
G gunea	33	61,8	43,8	28,8	-18	10,8

Emaitzak are eskasagoak dira beste gunearen alderaketan (Ikusi K taula). Hartan, K gunea batetik (esperientzia tartekatua, abiapuntuko erabilera: %78,2) eta A, C, E, I eta M guneak bestetik (esperientzia jarraituak, abiapuntuko erabilera batez beste: %77,3) alderatu ditugu. Esperientzia

jarraituek baino, esperientzia tartekatuek gutxiago astindu dute hizkuntza jokaera, are galera handiagoak izan dituzte bukatu eta hiru hilera egindako neurketan, eta balantze orokorrean askoz ere gutxiago aldatu dute abiapuntuko hizkuntza egoera. Beraz, burua lehenago lepotik.

K taula: K guneko esperientzia tartekatuaren alderaketa abiapuntu beretsuko gunekin


<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Esperientzia tartekatua						
K gunea	78,2	83,9	80,2	5,7	-3,6	2
Esperientzia jarraituak						
A gunea	74,1	85,5	87,9	11,4	2,3	13,8
C gunea	79,8	89,6	86,5	9,7	-3	6,7
E gunea	71,4	83	80,3	11,6	-2,8	8,8
I gunea	84,8	95	91,1	10,2	-3,9	6,4
M gunea	76,4	85,3	84,2	8,8	-1	7,8
Batez beste	77,3	87,7	86,0	10,4	-1,7	8,7

Esperientzia tartekatuen aldaera sartzerakoan, bereziki esperientziaren ondoko galera nahi genuen moteldu eta arindu, baina dirudenez hori lortu ez eta gainera esperientziaren garaia beraren intentsitatea eta indarra ahultzea gertatu da. Gorago aipatu dugu bi esperientzia tartekatu soilik izanik, oinarri ahula dugula irakurketa egiteko. Hala ere, lehen alderaketa hau interpretatzeko, pentsatzen dugu, behar bada, esperientzia abiatu-gelditu zikloek hautsi dutela eusleen jokaera iraunkorra, eta agian nahasmendua eta erritmo falta eragin dituztela eusleen hizkuntza jokaeran.

Aurreko atal batean komentatu dugu bi hilabeteko tartea aski izan dela batzuentzat (abiapuntuan “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian zeudenentzat bereziki) euskarazko ohitura lortu eta finkatzeko. Ordea, kategoria baxuagotik abiatu ziren askorentzat, nahiz eta esperientzian zehar iritsi “euskaraz beti edo ia beti” egitera ez zuten lortu jokaera iraunkor bihurtzea esperientzia bukatu eta gero. Halakoentzat bi hilabeteak ez ziren aski izan lortutako hizkuntza jokaera guztiz finkatzeko. Eta orain, zantzu hauen harira, gehienezake, ezen esperientziaren bi hilabeteak jarraituan izan ordez tartekatuak egin ditugunean, are nekezago egin dela bai “euskaraz beti edo beti” kategoria harrapatzea.

Badirudi, beti ere bi esperientzia tartekatu hauen oinarri txikitik, hizkuntza ohiturak astintzeko eta kasu askotan ere finkatzeko, ez dela gomendagarria bi hilabete baino gutxiagoko esperientzia jarraitua egitea. Hala ere, astindutakoa finkatzeko esperientzia luzeagoa behar da kasu askotan, gorago azaldu den bezala. Baina, auziak zabalik dirau: esperientziaren garaia luzatu beharko litzateke modu jarraituan edo atsedean aldi batez tartekatuta? Erantzun egokiaren bila jarraitu beharko dugu puzka batean, baina oraingo badirudi guk probatutako aldaerak ez dituela espero genituen emaitzak eman.

6.

**ONDORIOAK**

Eusle metodologia Aldahitz Ikerketaren edo lan-ildoaren baitan kokatzen da, eta ildo horren helburu nagusia hizkuntza ohituren aldaketaren azterketan sakontzea da. Zehatzago, Aldahitz Ikerketaren aztergaia da dagoeneko finkatuta dauden gaztelaniazko ohituretatik euskarazko ohitura finkatuetara gertatzen diren aldaketa prozesuak. Ildo horren baitan sortua da *eusle metodologia*, 2012. urtean, egoera jakin batzuetan, lan munduan eta lankide talde jakinetan, haien arteko harreman batzuk gaztelaniatik euskarara aldatzea errazteko asmoz.

Eusle metodologia, dena den, ezin da edozein langile-taldetan aplikatu edo garatu. Metodologia horren araberako esperientziak garatzeko badira ezinbesteko bi baldintza. Lehenengoa, langile-talde horretako kide guztiek euskara ulertzea da; zehatzago: esperientzian parte hartuko duten kide guztiak euskarazko “elkarrizketa arrunt bat” ulertzeko gai izatea. Eta bigarren baldintza: talde horren gehiengo oso nabarmen baten borondatea. Eusle esperientziak aukerazkoak dira erabat. Lankide-talde baten erabakiz abiatzen dira, eta gainera, beharrezkoa da lankide-talde horrek aste-ro-astero berrestea esperientzia hori jarraitzeko nahia.

Bi baldintza horiek betetzen dituzten hainbat esperientzia garatu ditu 2012az geroztik Soziolinguistika Klusterrak, eta lan honetan aurkezten dira 2013a eta 2016a bitartean garatu eta aztertu diren 13 esperientzien emaitzak.

Emaitza horien azterketatik ateratzen dugun lehen ondorioa da metodologia horrek baduela ahalmen nabarmena lankide horien arteko hizkuntza ohiturak gaztelaniatik euskarara aldatzeko. Bi hilabetez garatzen dira esperientzia hauek, eta ondoren hiru hilabetez “atseden” aldia dator. Bada joera orokorra berdina izan da –neurri batean edo bestean– aztertutako esperientzia guztietan: esperientziaren bi hilabeteetan lankideen arteko euskararen erabilerak gora egin du kasu guztietan, ondoren atsedenaldian erabilerak horrek ia kasu guztietan zer edo zer behera egiten du, eta orokorrean ziklo osoa kontuan hartuta (esperientzia + atsedenaldia) euskarazko erabilerak altuagoa izan da amaieran esperientzia hasi aurretik baino (kasu guztietan). Datutara ekarrita, bila-kaera orokorra hau da: batez beste, erabilerak 15,3 puntu egiten du gora esperientziak dirauen bi

hilabeteetan (%60,8tik %76,1era), ondoren atsedean aldian 4,7 puntu egiten du behera (%76,1etik %71,4ra), eta ziklo osoaren balantzea 10,6 puntuko igoerakoa da (%60,8tik %71,4ra).

Igoera oso nabarmentzat har ditzakegu kopuru horiek, kontuan hartzen badugu, batetik esperientzia laburrak direla (bi hilabete), bestetik esperientziak oso dinamika sinplean oinarritzen direla (ez dago berariazko saiorik edo klaserik, ez denbora inbertsio handirik, lankideek beren borondatez onarturiko joko-arau batzuk baino ez), eta horrez gain, esperientzia hauek garatu diren guneetan, kasu askotan, aurretik euskararen erabilera areagotzeko bestelako saiakerak ere egin izan direla.

Aipaturiko kopuruaren osagarri, beste ikuspegi batetik ere erreparatu izan diegu esperientzia hauek jasotako emaitzei, euskarazko erabilera areagotzeko edo hizkuntza ohiturak euskararen aldera aldatzeko duten eraginkortasuna baloratu nahian. Aztertutako guneetan, esperientziak abiatu aurretik badago dagoeneko euskarazko erabilera bat lankideen artean, kasu batzuetan oso altua, datuetan ikus daitekeenez. Ulertzekoa da hori gorago aipatutako bi baldintzak kontuan izanik (gune horietako kide guztiek ulertzen dute euskara eta borondate nabarmena adierazi dute euskararen erabilera areagotzen lagundu diezaiekeen esperientzia bat —*eusle metodologia*— haien artean garatzeko). Horrela, gune batzuetan euskarazko erabilera hasieran %60 eta %70ekoa ere bazen lankideen artean. Zenbat egin dezake “gora” euskarazko erabilerak halako gune batean? Hori zehazteko, bereizi egin ditugu esperientzia hasi aurretik dagoeneko euskaraz finkatuta zeuden lankideen arteko hizkuntza jokaerak eta hala ez zeudenak, eta bigarrenei erreparatu diegu soilik. Datuek erakusten dute, batez beste, harreman horietan euskararen erabileran aurrera zitekeen guztiaren %39 aurreratu dela bi hilabetezko esperientziaren ondorioz. Ez da, beraz, nolanhikoa aldaketa.

Eta jarraian, bigarren galdera: euskararen aldera aurrera zitekeen horretatik, zein proportzio (aldata eta) finkatu da euskaraz? Atsedean garaian, euskaraz izatera pasa edo iritsi diren harreman horietako batzuk finkatu egin dira euskaraz eta beste batzuk berriz gaztelaniaren aldera egin dute, neurri batean. Guztira, ziklo osoa kontuan harturik (esperientzia + atsedena), euskararen erabileran aurrera zitekeenaren %27 aurreratu da; laurdena pasatxo beraz.

Datu horiekin, eta 2013tik 2016ra garaturiko 13 esperientzien aniztasuna kontuan izanik, baiezta genezake, *eusle metodologia*, berau aplikatzeko beharrezkoak diren abiapuntuzko baldintzak betetzen diren egoeretan, tresna eraginkorra dela gaztelaniaz finkatuta dauden lankideen arteko hizkuntza ohiturak euskarara aldatzeko. Maiz entzuten dira, euskararen aldeko sustapen lanaren testuinguruan, “zein zaila den hizkuntza ohiturak aldatzea” moduko esaldiak. Eta, jakin badakigu, kasu batzuetan hala dela. Baina ez beti. Metodologia honen emaitzek erakusten dute, baldintza egokiak sortuz gero, ohiturak aldatzea posible dela, eta gainera, hilabete gutxitan eman daitezkeela talde batean aldaketa nahiko nabarmenak.

Datuekin jarraituz, aipatzekoa da *eusle metodologiaren* esperientzietan euskarazko erabileraren aurrerapena tipologia guztietan gertatu dela. Bi lankidek osaturiko “bikote”ak bost kategoriatan



sailkatu ditugu “beti edo ia beti gaztelaniaz” egiten zutenetatik “beti edo ia beti euskaraz” egiten zutenetara. Esperientziak abiatu aurretik, euskarazko erabilera baxua zuten bikoteen proportzioa %29,2koa zen (“beti edo ia beti gaztelaniaz”+“gaztelaniaz euskaraz baino gehiago”). Esperientzien ziklo osoa amaitzean, proportzio hori 10,1 puntu baxuagoa zen, batez beste (%19,1). Eta kontra-koa gertatu da euskaraz gehien egiten duten bikoteen proportzioarekin. Abiatu aurretik, nagusiki euskaraz aritzen ziren bikoteen proportzioa (“beti edo ia beti euskaraz”+“euskaraz gaztelaniaz baino gehiago”) %57,8koa zen. Zikloa amaitzean, berriz, proportzio hori 11,3 puntu altuagoa zen (%69,1ekoa).

Metodologia honekin eginiko esperientzien emaitzak aztertzeko beste ikuspegi interesgarri bat “euskarazko ohitura” lortzearen arabera da, hori baita azken finean berarekin erraztu nahi dena. Euren artean “beti edo ia beti euskaraz” ari diren bikoteak hartu ditugu “euskarazko ohituradun”tzat. Esperientziak hasi aurreko unea eta atsedean ondorengo unea alderatuta, eta bikoteak ohituraren arabera bost multzotan banatuta, hau da gertatu denaren laburpen bat: azterturiko bikote guztien %40,5ek bazuen euskarazko ohitura hasieran, eta bere horretan mantendu du. Bikoteen proportzio oso txiki batek (%1,7) bazuen ohitura hasieran, baina amaieran erabilera zertxobait baxuagoa izan du. Hirugarrenik, bikote guztien %11,4k “euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu” du esperientzia hauetan. Laugarrenik, bikoteen beste %6,2k “euskarazko ohitura berria lortu eta galdu” du, hau da, hasieran izan gabe, esperientzian zehar iritsi da euskarazko ohitura eskuratzerara, baina atsedean aldi berean ez da finkatu eta erabilerak zertxobait atzera egin du. Azkenik, bosgarren multzoan ditugu esperientziaren ziklo osoan “euskarazko ohitura berria lortu ez” dutenak. Azterturiko bikote guztien %40,3 dira hauek, eta aipatzekoa da, euskarazko ohitura finkatzeko maila horretara iritsi ez badira ere, erabileran aurrerapena egin dutela multzo honetako bikoteek ere (batez beste %29,1eko erabileratik %40,1ekora pasa dira, 11,0 puntuko igoera, beraz).

Esperientzia hauetan “euskarazko ohitura” berria eskuratu dutenekin jarraituz, badirudi euskaraz aritzeko ohitura “eskuratu eta finkatu” dutenak hizkuntza kategoriatik abiatutakoak zirela (bereziki “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategoriatik). Haien artean bi hilabeteko tartea aldi egokia izan da jokaera berria finkatzeko. Berriz, euskaraz aritzeko ohitura lortu arren finkatu ez dutenak, hizkuntza kategoriatik abiatutakoak ziren, eta haiei bi hilabeteko tartea motz eta labur gelditu zaie hizkuntza jokaera berria guztiz finkatzeko.

Ondorioetan azpimarratu beharreko beste puntu bat eusleek eragindako dinamikarena da. Eusle gisa aritzen diren lankideak dira, azken finean, metodologia honen printzipio aktiboa, nolabait. Orokorrean, datuek erakusten dute eusleen jokaerak nabarmen astindu dituela lankide talde hauen harreman sare osoak. Eusleen jokaera lurrikara baten erdigune gisa har liteke, bere eragina taldearen txoko guztietara hedatu duena.

Esan genezake eusleen jokaera “urratzaileak” eta ez-eusleen jokaera “egokitzaileak” bat egin dutela biek hizkuntza jokaera astintzeko eta kasu askotan jokaera berria finkatzeko. Oso adierazgarria da, zentzu honetan, egiaztatzea eusleen nahiz ez-eusleen hizkuntza erabileraren bilakaera antzekoa gertatu dela. Egia bada ere eusleak abiatu direla ez-eusleak baino hizkuntza erabilera al-

tuagotik, ordea batzuen eta besteen aurrerapen proportzionalak antzekoak izan dira: batez beste, eusle aritu diren lankideen erabilerak, ziklo osoan 9,1 puntuko igoera izan du (%69,8tik %79,0ra); eta eusle izan ez diren lankideen erabileraren igoera 11,4 puntukoa izan da (%55,3tik %66,7ra). Eusleen jokaeraren kutsatzea, beraz, nabarmen gertatu da.

Kutsatze horren edo eusle aritu ez direnen egokitze horri buruzko beste datu adierazgarri bat: “euskarazko ohitura lortu eta finkatu” duten bikoteak aztertzean, ikusten dugu, aldaketa hori egin duten bikoteen %30ean kideetako bat ere ez dela eusle izan esperientzian zehar. Horrek adieraziko luke eusleen jokaeraren eraginak gainditzen duela aurrez aurreko harremana, eta nolabait harreman eremu osoa jotzen duela.


Aipamen labur bat, azkenik, *eusle metodologiaren* esperientziak “jarraituak” izan ordez modu “tartekatuan” (esperientzia-aldiak eta atsedanak tartekatuz) antolatzearen inguruan eginiko saioaz. Helduleku ahula dugu oraingo honetaz ondorioak ateratzeko, baina esperientzia tartekatuetan hizkuntza jokaeraren astintzea txikixeagoa izan da ohiko esperientzia jarraituetan baino, eta astindutakoa finkatzeko proportzioa ere ez da hobetu. Nolanahi ere, ikerketa galdera moduan zabalik jarraitzen du halako metodologietarako atsedan/esperientzia aldien arteko oreka egokien gaiak.

Horrenbestez, ikuspegi ezberdinetatik aztertutako datuetan ikus dezakegu metodologia honek eragiten duela taldeetan dinamika bat orokorrean euskarazko erabilera areagotzen duena. Esan genezake, metodologiak, modu simple batean, baldintza egokiak sortzen dituela hori gerta dadin. Zergatik? eratzten duelako egoera desberdin bat, oinarria taldearen borondatean duena, eta zilegitasuna ematen diona hizkuntza jokaera berri bati, euskarazkoari.

Euskararen erabilera dela eta, maiz errepikatzen dira era honetako galderak: “zer dela eta euskarazko erabilerak ez du bere ezagutzaren antzeko aurrerapenik?” Hemen aurkeztu dugun lanaren ildotik, uste dugu, erabilera areagotu nahi bada, egokiagoak direla beste modu bateko galderak. Esate baterako: “talde batean zein elementu gehituta edo aldatuta bihurtzen da zilegi edo eraman-garri euskarazko erabilera berri bat?”, edo “zein egoeratan da talde batean onargarria euskarazko erabilera urratzaile bat?” modukoak.

Uste dugu, bere txikian, *eusle metodologiarekin* garaturiko esperientzia hauen emaitzek ematen dizkietela erantzun batzuk behintzat era horretako galderari. Espero dezagun tankera horretako galdera gehiago sortzen jarraitzea, eta erantzun berri gehiago ere izatea datozen urteetan.

7.



BIBLIOGRAFIA

BRUNER, J. (1990). *El habla del niño*. Barcelona: Paidós.

CIALDINI, R. (2001). *Influence. Science and Practice*. Boston: Pearson.

CSIKSZENTMIHALYI, M. (1997). *Fluir: una psicología de la felicidad*. Barcelona: Gedisa.

FESTINGER, L. (1975). *Teoría de la disonancia cognoscitiva*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos.

HEIDER, F (1958). *The psychology of interpersonal relations*. New York: Wiley.

JAUREGI, P. eta SUBERBIOLA, P. (2015). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

KELLEY, H. H. (1971). *Attribution in social interaction*. New York: General Learning Press.


KRASHEN, S. (1985). *The input hypothesis: issues and implicacions*. London: Longman.

MATURANA, H. ETA DÁVILA, X. (2008). *Habitar humano en seis ensayos de biología-cultural*. Santiago de Chile: J.C. Sáez.

MOSKOWITZ, G. B. (2005). *Social cognition: Understanding self and others*. New York: Guilford Press.

ZALBIDE, M. (2016). “ Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 100(3):10-192.

8.



ERANSKINAK

BANAKAKO AZTERKETA

1. Langile kopurua

1. taula: gune bakoitzeko lankide kopurua

<i>Lantokiak</i>	<i>Kide kopurua</i>	<i>%</i>
D gunea	7	4,2
B gunea	8	4,8
F gunea	9	5,4
I gunea	11	6,6
K gunea	11	6,6
A gunea	12	7,2
G gunea	13	7,8
H gunea	13	7,8
C gunea	14	8,4
E gunea	15	9,0
L gunea	16	9,6
M gunea	17	10,2
J gunea	20	12,0
Guztira	166	100

2. Hizkuntza erabileraren bilakaera

2. taula: gune bakoitzeko euskararen erabileraren bilakaera, neurtutako hiru uneetan

<i>Lantokiak</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
A gunea	74,1	85,5	87,9	11,4	2,3	13,8
B gunea	45,8	67	58,2	21,2	-8,8	12,4
C gunea	79,8	89,6	86,5	9,7	-3	6,7
D gunea	44,6	85,2	63,7	40,5	-21,5	19,1
E gunea	71,4	83	80,3	11,6	-2,8	8,8
F gunea	49,4	68,8	62,4	19,4	-6,3	13,1
G gunea	33	61,8	43,8	28,8	-18	10,8
H gunea	59,3	71,2	69,2	11,9	-2	9,9
I gunea	84,8	95	91,1	10,2	-3,9	6,4
J gunea	65,3	77,2	78,5	11,9	1,3	13,2
K gunea	78,2	83,9	80,2	5,7	-3,6	2
L gunea	22,9	37,5	25,3	14,6	-12,2	2,5
M gunea	76,4	85,3	84,2	8,8	-1	7,8
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,3	-4,7	10,6

- **Erabilera 1:** Esperientziaren hasieran eskuratutako euskararen erabileraren datuak (erabilera aitortua)
- **Erabilera 2:** Esperientzia amaitzerakoan eskuratutako euskararen erabileraren datuak (erabilera aitortua)
- **Erabilera 3:** Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera eskuratutako euskararen erabileraren datuak (erabilera aitortua)
- **Aldea 1:** Erabilera 2 - erabilera 1
- **Aldea 2:** Erabilera 3 - erabilera 2
- **Aldea 3:** Erabilera 3 - erabilera 1

3. Hizkuntza egoera hobetzeko tartea hasieran eta harekiko emaniko aurrerapenak

3. taula: gune bakoitzeko hizkuntza egoera hobetzeko tartea hasieran eta harekiko emaniko aurrerapenak (ehunekotan)

<i>Lantokiak</i>	<i>Hobetzeko tartea hasieran (erabilera1)</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera2)</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera3)</i>
A gunea	25,9	44	53,3
B gunea	54,2	39,1	22,9
C gunea	20,2	48	33,2
D gunea	55,4	73,1	34,5
E gunea	28,6	40,6	30,8
F gunea	50,6	38,3	25,9
G gunea	67	43	16,1
H gunea	40,7	29,2	24,4
I gunea	15,2	67,2	41,8
J gunea	34,7	34,3	38,0
K gunea	21,8	26,0	9,4
L gunea	77,1	19,0	3,2
M gunea	23,6	37,4	33,0
Guztira	39,2	39	27

4. Eusleen eta ez-eusleen banaketa

4. taula: eusleen eta ez-eusleen banaketa guneko bakoitzean

<i>Lantokiak</i>	<i>Eusle izan dira</i>	<i>(%)</i>	<i>Ez dira eusle izan</i>	<i>(%)</i>	<i>Guneko langileak</i>	<i>(%)</i>
A gunea	6	50	6	50	12	100
B gunea	4	50	4	50	8	100
C gunea	6	42,9	8	57,1	14	100
D gunea	4	57,1	3	42,9	7	100
E gunea	6	40	9	60	15	100
F gunea	2	22,2	7	77,8	9	100
G gunea	5	38,5	8	61,5	13	100
H gunea	6	46,2	7	53,8	13	100
I gunea	4	36,4	7	63,6	11	100
J gunea	4	20	16	80	20	100
K gunea	4	36,4	7	63,6	11	100
L gunea	6	37,5	10	62,5	16	100
M gunea	6	35,3	11	64,7	17	100
Guztira	63	38	103	62	166	100

5. Eusle izan diren eta izan ez diren langileen hizkuntza erabileraren bilakaera

5. taula: eusle izan direnen eta izan ez direnen batez besteko erabilera neurketa bakoitzean

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Ez da eusle izan	55,3	69,7	66,7	14,3	-2,9	11,4
Eusle izan da	69,8	86,5	79,0	16,7	-7,5	9,1
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,2	-4,7	10,5

6. Eusleen hizkuntza arauaren betetze maila

6. taula: eusleen hizkuntza arauaren betetze maila

<i>Lantokiak</i>	<i>Bai</i>	<i>(%)</i>	<i>Erdizka</i>	<i>(%)</i>	<i>Ez</i>	<i>(%)</i>	<i>Guztira</i>	<i>(%)</i>
A gunea	2	33,3	3	50	1	16,7	6	100
B gunea	4	100	0	0	0	0	4	100
C gunea	4	66,7	2	33,3	0	0	6	100
D gunea	2	50	1	25	1	25	4	100
E gunea	1	16,7	5	83,3	0	0	6	100
F gunea	2	100	0	0	0	0	2	100
G gunea	1	20	4	80	0	0	5	100
H gunea	1	16,7	5	83,3	0	0	6	100
I gunea	3	75	0	0	1	25	4	100
J gunea	3	75	1	25	0	0	4	100
K gunea	3	75	1	25	0	0	4	100
L gunea	3	50	2	33,3	1	16,7	6	100
M gunea	2	33,3	4	66,7	0	0	6	100
Guztira	31	49,2	28	44,4	4	6,3	63	100

Betetze maila, “bai”, “erdizka” eta “ez” kategoriatan sailkatzeko, honako irizpide hauek erabili izan dira:

- **Bai:** %90-%100
- **Erdizka:** %70-%89
- **Ez:** %0-%69

7. Eusleen hizkuntza erabileraren bilakaera, hizkuntza arauaren betetze mailaren arabera

7. taula: eusleen hizkuntza erabilera neurketaz neurketa, hizkuntza arauaren betetze mailaren arabera (ehunekotan)

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Bai	37,5	68,8	50,0	31,3	-18,8	12,5
Erdizka	66,1	83,0	75,9	17,0	-7,1	9,8
Ez	77,4	91,9	85,5	14,5	-6,5	8,1
Guztira	69,8	86,5	79,0	16,7	-7,5	9,1

8. Esperientzia jarraituak eta esperientzia tartekatuak

8.1. taula: “Esperientzia jarraituak eta tartekatuak” aldagaiaren arabera hizkuntza erabileraren bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Jarraituak	64,0	79,7	76,1	15,6	-3,6	12,1
Tartekatuak	44,4	57,4	47,2	13,0	-10,2	2,8
Guztira	60,8	76,1	71,4	15,2	-4,7	10,5

8.2. taula: L guneko esperientzia tartekatuaren alderaketa abiapuntu beretsuko guneekin

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Esperientzia tartekatua						
L gunea	22,9	37,5	25,3	14,6	-12,2	2,5
Esperientzia jarraitua						
G gunea	33	61,8	43,8	28,8	-18	10,8

8.3. taula: K guneko esperientzia tartekatuaren alderaketa abiapuntu beretsuko guneekin

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Esperientzia tartekatua						
K gunea	78,2	83,9	80,2	5,7	-3,6	2
Esperientzia jarraituak						
A gunea	74,1	85,5	87,9	11,4	2,3	13,8
C gunea	79,8	89,6	86,5	9,7	-3	6,7
E gunea	71,4	83	80,3	11,6	-2,8	8,8
I gunea	84,8	95	91,1	10,2	-3,9	6,4
M gunea	76,4	85,3	84,2	8,8	-1	7,8
Batez beste	77,3	87,7	86,0	10,4	-1,7	8,7

BIKOTEKAKO AZTERKETA

9. Bikote kopurua

9. taula: gune bakoitzeko lankide-bikote kopurua

<i>Lantokiak</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
A gunea	59	5,8
B gunea	28	2,7
C gunea	90	8,8
D gunea	21	2,0
E gunea	105	10,2
F gunea	36	3,5
G gunea	78	7,6
H gunea	78	7,6
I gunea	55	5,4
J gunea	190	18,5
K gunea	55	5,4
L gunea	109	10,6
M gunea	122	11,9
Guztira	1026	100

10. Harremanaren maiztasuna

10.1. taula: lankideen arteko harremanaren maiztasuna, guneka (bikote kopuruak)

<i>Lantokiak</i>	<i>Oso txikia</i>	<i>Txikia</i>	<i>Tartekoa</i>	<i>Nahikoa</i>	<i>Handia</i>	<i>Guztira</i>
A gunea	0	5	21	19	14	59
B gunea	0	0	3	7	18	28
C gunea	1	6	21	31	31	90
D gunea	0	2	3	4	12	21
E gunea	3	15	32	34	21	105
F gunea	0	2	11	14	9	36
G gunea	5	22	22	13	16	78
H gunea	1	11	26	20	20	78
I gunea	4	12	12	12	15	55
J gunea	?	?	?	?	?	?
K gunea	0	8	5	10	32	55
L gunea	0	31	57	21	0	109
M gunea	1	4	32	49	36	122
Guztira	15	118	245	234	224	836

Oharra: Ezin izan genuen J gunean informazio hau jaso. Guztira 190 bikote dira horiek guztiak

10.2. taula: lankideen arteko harremanaren maiztasuna, guneka (ehunekotan)

<i>Lantokiak</i>	<i>Oso txikia</i>	<i>Txikia</i>	<i>Tartekoa</i>	<i>Nahikoa</i>	<i>Handia</i>	<i>Guztira</i>
A gunea	0	8,5	35,6	32,2	23,7	100
B gunea	0	0	10,7	25,0	64,3	100
C gunea	1,1	6,7	23,3	34,4	34,4	100
D gunea	0	9,5	14,3	19,0	57,1	100
E gunea	2,9	14,3	30,5	32,4	20,0	100
F gunea	0	5,6	30,6	38,9	25,0	100
G gunea	6,4	28,2	28,2	16,7	20,5	100
H gunea	1,3	14,1	33,3	25,6	25,6	100
I gunea	7,3	21,8	21,8	21,8	27,3	100
J gunea	?	?	?	?	?	?
K gunea	0	14,5	9,1	18,2	58,2	100
L gunea	0	28,4	52,3	19,3	0	100
M gunea	0,8	3,3	26,2	40,2	29,5	100
Guztira	1,8	14,1	29,3	28,0	26,8	100

10.3. taula: hizkuntza erabileraren bilakaera, harremanaren maiztasunaren arabera

<i>Harremana</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Oso txikia	70,0	81,7	71,7	11,7	-10,0	1,7
Txikia	51,9	66,5	60,4	14,6	-6,1	8,5
Tartekoa	59,1	69,7	65,6	10,6	-4,1	6,5
Nahikoa	68,5	81,5	75,3	13,0	-6,2	6,8
Tartekoa	71,5	85,5	80,3	14,0	-5,3	8,7
Guztira²⁵	64,2	77,0	71,6	12,8	-5,4	7,4

25 Ohar bedi irakurlea erabilera datu hauek zertxobait txikiagoak direla aurreko tauletan emandakoekin alderatuta. Aurreko datuak "banakako datu basearen" arabera emandakoak dira, eta azken hauek "bikotekako datu basearen arabera". Banakako datu baseak biltzen ditu batez bestean norbanakoari buruz gainerako kide guztiek ematen dituzten iritziak. Bikotekako datu baseak, ordea, bikotearen bi kideek soilik ematen dituzten datuak biltzen ditu. Datuak era desberdinean prozesatzearen ondorioz gertatzen dira gorabehera txiki horiek.

11. Hizkuntza kategorien bilakaera

11. taula: Hizkuntza kategoriak hasieran eta bilakaeran

<i>Hizkuntza kategoriak</i>	<i>Bikoteak hasieran (%)</i>	<i>Bikoteak bukaeran (%)</i>	<i>Bikoteak bukatu eta hiru hilera (%)</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Beti edo ia beti gaztelaniaz	10,8	4,9	7,6	-5,9	2,7	-3,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18,4	9,7	11,5	-8,7	1,8	-6,9
Bietan berdin	13,0	11,3	11,9	-1,7	0,6	-1,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	15,7	18,1	17,2	2,4	-1,0	1,5
Beti edo ia beti euskaraz	42,1	55,9	51,9	13,8	-4,1	9,7
Guztira	100	100	100	0	0	0

12. Bikoteen sailkapena, kideak eusle izan ala ez aldagaiaren arabera

12.1. taula: Bikoteen sailkapena, kideak eusle izan ala ez aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E+E	132	12,9
E+A	495	48,2
A+A	399	38,9
Guztira	1026	100

- **E+E** : bi kideak eusle izan dira. E hizkiak eusle izan dela adierazi nahi du
- **E+A**: kide bat eusle izan da eta bestea ez. A hizkiak kide arrunta izan dela adierazi nahi du
- **A+A**: ez bata ez bestea ez dira eusle izan, hots: biak kide “arruntak”

12.2. taula: Kideak eusle izan ala ez aldagaiaren arabeko hizkuntza erabileraren bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
E+E	76,3	91,0	84,0	14,7	-7,0	7,7
E+A	67,9	82,2	77,3	14,3	-4,9	9,4
A+A	57,6	67,5	65,4	10,0	-2,1	7,8
Guztira	76,3	91,0	84,0	14,7	-7,0	7,7

13. Bikoteen sailkapena, kideak hasieran norbaitekin euskaraz egiteko ohitura izan ala ez aldagaiaren arabera

13.1. taula: Bikoteen sailkapena, kideak hasieran norbaitekin euskaraz egiteko ohitura izan ala ez aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
5+5	631	61,5
5+0	317	30,9
0+0	78	7,6
Guztira	1026	100

Hona hemen kategoria bakoitzaren esanahia:

- **5+5** : bi kideek badute hasieran bertan lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta (euskarazko ohitura “beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza kategoriarekin parekatu dugu lanean zehar. Hizkuntza kategoria horri 5 zenbakia dagokio guk erabili dugun eskalan. Hortik datorkio, beraz, multzo honi 5 zenbakiarekin identifikatzea).
- **5+0**: kide batek badu lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta hasieran bertan, eta besteak, ordea, ez du inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.
- **0+0**: ez kide batek ez besteak ez dute inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.

13.2. taula: kideak hasieran norbaitekin euskaraz egiteko ohitura izan ala ez aldagaiaren arabera hizkuntza erabileraren bilakaera

Tipologia	Erabilera1	Erabilera2	Erabilera3	Aldea1	Aldea2	Aldea3
5+5	86,7	94,0	92,6	7,2	-1,4	5,9
5+0	34,0	58,1	49,2	24,1	-8,9	15,2
0+0	13,8	24,0	17,6	10,3	-6,4	3,8
Guztira	86,7	94,0	92,6	7,2	-1,4	5,9

14. Bikoteen ibilbidea neurketaz neurketa, “beti edo ia beti euskaraz” kategoriaren ikuspegitik begiratuta

Ondorengo taula ezkerretik eskuinera irakurri behar da, multzo jakin batzuen ibilbide erreala ikusi ahal izateko. Taulak “beti edo ia beti euskaraz” kategoriakoak hartzen ditu erreferentzia nagusitzat, kategoria horrek ordezkatzeko baitu, euskararen ikuspegitik, hizkuntza egoerarik hoberena. Hortaz, taulan ikus daitezke zenbat bikote zeuden hasieran bertan hizkuntza egoerarik hoberenean, zenbat iritsi diren egoera horretara bigarren neurketaldian, eta zenbatek eutsi dion egoera horri esku-hartzea amaitu eta hiru hilabetera.

14. taula: bikoteen ibilbidea neurketaz neurketa,
“euskaraz beti edo ia beti” kategoriaren ikuspegitik begiratuta

Hasieran (erabilera1)	Bukaeran (erabilera2)	Bukatu eta hiru hilera (erabilera3)
Zenbat bikote “beti edo ia beti euskaraz” kategoriakoak?	432	Aurrekotik zenbatek eutsi dio “beti edo ia beti euskaraz” kategoriari? 200
Zenbat bikote “beti edo ia beti euskaraz” kategoriakoak ez direnak?	594	Zenbat bikote berri iritsi da “beti edo ia beti euskaraz” kategoriara? 154
Zenbat bikote lagin osoan?	1026	Aurrekotik zenbatek eutsi dio “beti edo ia beti euskaraz” kategoriari? 409+2
		89+27

Oharra:

(+2) bi bikote hauek A eta E gunekoak dira, eta honako ibilbide hau egin dute:

- **Erabilera1ean** : “beti edo ia beti euskaraz” kategorian
- **Erabilera2an**: “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian
- **Erabilera3an**: “beti edo ia beti euskaraz” kategorian

(+27) hogeita zazpi bikote hauek C (3), E (3), H (1), I (1), J (13), L (1), M (4) eta G gunekoak dira, eta honako ibilbide hau egin dute:

- **Erabilera1ean** : “bietan berdin” edo “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian
- **Erabilera2an**: “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian
- **Erabilera3an**: “beti edo ia beti euskaraz” kategorian

15. Bikoteen sailkapena , “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

“Betit edo ia betit euskaraz” kategoria hartu dugu “euskarazko ohitura” kontzeptuaren pareko. Hori gogoan harturik, lagin osoa bost kategoriatan banatu dugu. Honako hauek, hain zuzen ere:

- **Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi**: Hasieran (erabilera1an) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera3n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian jarraitu.
- **Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi**: Hasieran (erabilera1an) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3n) “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu**: Hasieran (erabilera1an) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera2n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian egon, eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu**: Hasieran (erabilera1an) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera2n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera berriz ere (erabilera3n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon.
- **Euskarazko ohitura berria lortu ez**: Hasieran (erabilera1an) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran (erabilera2n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera3n) “betit edo ia betit euskaraz” kategorian EZ egon.



15.1. taula: bikoteen sailkapena, “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	415	40,4
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	17	1,7
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	117	11,4
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	64	6,2
Euskarazko ohitura berria lortu ez	413	40,3
Guztira	1026	100

15.2. taula: “euskarazko ohitura” aldagaiaren araberako hizkuntza erabileraren bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erab.1</i>	<i>Erab.2</i>	<i>Erab.3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	100	99,6	100	-0,4	0,4	0
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	100	89,7	72,1	-10,3	-17,6	-27,9
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	94,2	100	26,5	5,8	32,3
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	100	69,5	45,3	-30,5	14,8
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	46,9	40,1	17,7	-6,7	11,0
Guztira	65,0	77,6	73,5	12,7	-4,1	8,6

15.3. taula: “euskarazko ohitura” eskuragai zeukatenen hizkuntza erabileraren bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erab. 1</i>	<i>Erab. 2</i>	<i>Erab. 3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	94,2	100	26,5	5,8	32,3
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	100	69,5	45,3	-30,5	14,8
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	46,9	40,1	17,7	-6,7	11,0

Guztira	39,5	61,9	55,1	22,4	-6,8	15,6
----------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------

15.4. taula: “euskarazko ohitura” eskuragai zeukatenen hasierako erabilera eta hobetzeko tartea

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera hasieran</i>	<i>Hobetzeko tartea</i>	<i>Guztira</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	32,3	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	45,3	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	70,9	100
Guztira	39,5	60,5	100

15.5. taula: “euskarazko ohitura” eskuragai zeukatenen aurrerapena hobetzeko tartearekiko

<i>Tipologia</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena erabilera 2an (%)</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena erabilera 3an (%)</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	82,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	100	32,7
Euskarazko ohitura berria lortu ez	25,0	15,5
Guztira	37,0	25,8

15.6. taula: “euskarazko ohitura” eskuragai zeukaten bikoteen banaketa, “eusle” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>E+E</i>	<i>E+A</i>	<i>A+A</i>	<i>Guztira</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	9,4	60,7	29,9	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	25,0	64,1	10,9	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	7,5	39,7	52,8	100
Guztira	9,8	46,5	43,8	100

15.7. taula: “euskarazko ohitura” eskuragai zeukaten bikoteen banaketa,
“hasieran norbaitekin euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>5+5</i>	<i>5+0</i>	<i>0+0</i>	<i>Guztira</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	68,4	31,6	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	45,3	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	21,8	59,3	18,9	100
Guztira	34,5	52,4	13,1	100